

# ttipi ttapa

2004ko apirilaren 22a • XXIV. urtea



**Pedro Zapata**  
**Arizkungo arotxa**

03

Baztan aldean, sutik eta eskuz aritzen den arotx bakarra da Pedro Zapata arizkundarra. «Arotxak afizioa behar du, lan bortitza da, baina goxoa neguan» dio.



**Xuper Ordoki, 4x4**  
**autoen mugen bila**

28

Auto-trial probak antolatzen dituen Basati 4x4 taldeko kide da Xuper Ordoki beratarra. «Proben helburua autoen muga zein den jakitea da, ez autoa xehetzea».

## Federación de Comercios de Navarra



04

Elisabet Azkarate:

**Herriak bizirik mantentzeko  
Merkataritzaren Dinamizazio Plana  
diseinatu beharko lukete udalek**

# MUEBLES A METS

Iarunbat  
arratsaldetan  
irekia

4000 m<sup>2</sup> erakusketa

**Sarrera  
BERATik da**

*Sastrin karrika,  
3.2 - 3.4 Alkaiaga*

**31789 LESAKA**


*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE  
WEB ORRIA

[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)

**Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak**



**Eskaintza  
logeletan  
%30eko  
deskontua**



Nafarroako Gobernua  
Industria eta Teknologia,  
Komerzio eta Lan Departamendua

## DATUAK...

- 63 urte beteko ditu maiatzean Pedro Zapata, Arizkungo arotxak.
- Baztanen, suarekin eta eskuz aritzen den arotx bakarra da.
- Burdinarekin egiten ahal den guztia egiten omen du: Sutarako burdinak, taloburdinak, berak diseinatutako mahaiak eta aulkiak, butakak, ohatzeburuak, danbolinak, argizariolak, laratzak, apaingarriak, lanparak, ferratzeko iltzeekin egindako figura ttikiak...



Pedro ZAPATA *Arizkungo arotxa*

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

# «Arotxak afizioa behar du, lan bortitza da baina goxoa neguan»

Joseba OLAGARAI

## Zein da arotxaren lana?

Nekazaritzako eguneroko lan tresnetatik hasi eta apaintzeko gauza konplikatuena bitarte egiten ahal du arotxak burniarekin, gusto pixko batekin eta pazientziarekin. Arotxak lanerako afizioa behar du. Lan bortitza da, batzuk bederen, baina negurako lan goxoa da, baina bero fuertea denean eta suaren berotasunarekin, jendea aunitz izitzen da.

## Ttiki-ttikitatik hasi zinen lanean?

Aitzinetik zerrategi batean aritzen nintzen Arizkunen. 14-15 urterekin hasi nintzen arotx. Erratzun hameka urte aritu nintzen lanean arotxarekin eta han ikasi nuen ofizioa. Arituz ikasten da. Hasi berritan, 17-18 urte nituela, dekoraziorako gauzarik ez zen egiten oraindik hemen. Baigorriko zurgin bat etorri zitzaigun, mahaiantzat burdinezko soporteak egiterik ote genuen. Doike, arotxak ez zuen gogo haundirik adornotarako lan horiek egiteko, baina niri gauza zailak gustatzen zitzaizkidan eta baietz erran eta egin nizkion. Eraman zituen eta nik 17-18 urtetan egindako adornoak Pa-

## «Jendeak ez du ezagutzen lan hau.

Lana egina ikusten du eta “Zein polita!” erran, baina hartara ailegatzeko giblean dagoen eskulanean ez du pentsatzen»

risen barna nonbait ibiliko dira orai. **Eskari aunitz izaten dituzu, baina ez hemengo jendearena bakarrik, kanpotik ere etortzen dira...**

Bai, kanpotik etortzen da jende aunitz enkarguekin. Orai berean Madrilera batzuentzat ari naiz lanean, badiugu lehendik Alikanterako eginak, Valentzia, Bartzelona, Kordoba, Galizia, Alemania, Frantziako Paberako lanpara bat egiten ari gara orai berean, alde guzietarako... Ameriketara ere igorria dut sillaren bat, portea silla baino gehiago kosta zitzaion, baina kapritxoa huraxe zuen eta zer erran behar duzu? Lanik gehien-gehiena enkarguz egiten dut, baina asti pixko bat baldin badut zerbait berria pentsatu eta egiten dut. Gero erakustetan paratu eta saldu egiten da. Ferrietan ere ibili gara frango tokitan. Na-

farroa parte handixkoena kurritu dut, baita Gipuzkoa eta Frantzia frango barnerat ere. Ikastoletatik eta etortzen dira lehenago nola egiten zen lana ikusteko.

**Alde guzietako hainbertze erosleekin, anekdotaren bat ere izanen duzu...**

Aleman batzuk etorri ziren honat landa etxe batera. Erakusketara sartu eta paretako lanpara ttiki bat gustatu zitzaien, beso makur batekin. Bat eramane zuten, baina etxean paratu zutenean pareja behar zuela gogoratu zitzaien eta handik bertze bat berdina eskatu zuten. Madrilera heldu zirela eta ez zitzaizela inporta hemendik pasatzea biltzera. Etorri eta eramane zuten.

**Zein etorkizun ikusten diozu arotx lanari?**

Arotxaren lana, jendeak gustoa, dirua eta kapritxoa duen biztartean iraunen du. Ez dut erraten negozio handia egiteko, baina bizia ateratzeko iraunen du. Lanean aritu nahi duenak izanen du lana. Niri bi semeak aritzen zaizkit eta pittanaka hartzen ari dira.



Elisabet Azkarate da Nafarroako Merkataritza Federazioko kudeatzailea.

Argarkia: Josu Santesteban

DENDA TTIKIAK DESAGERTZEN ARI DIRELA ETA

# Herrietako dendak atxikitzekeo Plana prestatzea premia handiko afera da

**Denda ttikien desagertzea fenomeno zabaldua da. Izan ere, herrietan ez ezik hirietan ere auzoko-denda ttikiak desagertzen ari baitira aspaldi honetan. Iruña, Donostia, Txingudi eta BAB aldeko merkataritza gune handien mesedetan.**

**Etorkizunari begira, "premiatzkoa da herrietako zerbitzu sektorearen dinamizazioa ekarriko duen Plan Sektoriala prestatzea, eta udalek horren kontzientzia hartu beharko lukete lehenbailehen" Elisabet Azkarate, Nafarroako Merkataritza Federazioko kudeatzaileak dioenez.**

J. IRIGOIEN

Hiri bazterretako merkataritza zentru handiek kontsumoa eta aisialdirako eskaintza uztartu dute azken urteotan, eta seguruenik horren laguntzarekin, kontsumitzaileen ohiturak aldatzen ari dira ziztu bizian. *"Begibistan den fenomeno da hori, eta hurrengo urteotan oraindik gehiago nabarituko da"* azpimarratu digu Elisabet Azkaratek.

Joera horren ondorioz, urteik urtera gehiago dira herriko dendak alde batera utzi eta merkataritza zentru handietako bezero tipiko bihurtzen diren kontsumitzaileak. Ortziral arratsalde eta larunbatetan batez ere, gero eta normalagoa da autoa hartu eta goiz-arratsalde pasa Iruña edo Irun-Donostialdeko mer-

kataritza zentru handietara joatea asterako edo hilabeterako behar diren erosketen zatirik mardulena egiteko. Jan-edateko produktuak, garbikariak, arropak, oinetakoak, tabernak, ileapaindegiak, gasolindegiak, zinemak... denetariko eskaintza ugaria dago kontsumo eta denbora-pasarako tenplu berri hauek. Horixe baita, azken batean, duten arrakastaren gakoetako bat: kontsumoa, zerbitzuak eta denbora-pasa batera eskaintzea... modu erraz eta erosoan, leku bilduan, autoa aparkatzeko arazorik gabe.

Denda ttikiek momentuz ez daude prestatuak egoera berri honi erantzuteko. Bakoitza bere aldetik dabil eta guztiei afektatzen dien arazoei elkarrekin erantzuteko ezintasuna antzematen zaie.

## HERRIETAKO KOMERTZIOA LAGUNTZEKO PROIEKTUAK

Hemen gertatzen ari den fenomeno ez da batere arraroa. Europako bertze eskualdetan ere gertatzen ari da aspalditik, eta zenbait tokitan dagoeneko hasiak dira herrietako komertzioa laguntzeko estrategiek. *“Datuek garbi erakusten dute zerbitzu sektorearen indizea jausten den herrietan, herriko dinamismoa jautsi egiten dela, eta azken finean, herri horietan beste sektoreak garatu ahal izateko aukerak ere jautsi egiten direla. Komertzioak ixten direnean, berehala nabaritzen da gizartean, enpleguan, inguruko zerbitzu-enpresen fakturazioan... Komertzioak, azken finean, ekonomia lokalaren adierazle dira”* zehazten du Elisabetek, eta momentu honetan *“komertziantea zahartzen ari da eta ez du erreleborik”* gaineratzen du.

Erremedioak ere badira horrelako kasuetan aplikatzeko. *“Katalunian, Euskal Autonomi Erkidegoan, Galizian... abian jarri dituzte herrietako merkataritza sustatzeko planak. Aholkuak komertzioak irekitzerakoan, laguntzak inbertsiorako, sektorea osotasunean sustatzeko laguntzak, kapital-ihesa murrizteko kontsumitzaileengan sentsibilizazio kanpainak... azken batean sustapen-ekintza multzoa tekniko batek koodinatzen dituenak. Herriz-herri eta eskualdez-eskualde azterketa zehatzak egin behar dira, bakoitzaren berezitasunak aztertzeke eta Dinamizaziorako Plan zehatzak prestatzeke”*. Dinamizazio turistikoak hitzegiten den modu berean, dinamizazio komertzialaz hitzegin beharra dagoela azpimarratzen du Elisabet Azkaratek.

## MERKATARITZAKO FORU LEGEAK HIRU URTE

2001ean onartu zen Nafarroan Komertzioaren Legea, eta hor aipatzen da sektorearendako hobekuntza planak diseinatuko direla. Elisabet Azkaratek jakinarazi digunez, Nafarroako Gobernuak Industria eta Merkataritza Departamentuak hitzeman die aurtan bertan prestatuko dela Nafarroako Merkataritzaren Plan Estrategikoa. Iku si beharko orain zertan gauzatzen den Plan hori, eta Foru Administrazioak zenbat diru jartzen duen konpetibitatea hobetzeko proiektuetan. Izan ere, *“egoerak okerre-eginen du, eta hurrengo 2-3 urteak erabakiorrak izanen dira murrizte dinamizazio buelta emateko”*.

## AZKEN 6 URTEOTAKO BILAKAERA

	BAZTAN		BERA		DONEZTEBE		LEITZA		LESACA	
	1997	2003	1997	2003	1997	2003	1997	2003	1997	2003
<b>HARATEGIAK</b>	10	9	5	4	5	5	7	4	3	3
<b>ARRAINDEGIAK</b>	2	1	3	3	2	1	2	1	2	2
<b>JANARIDENDAK</b>	29	20	10	8	4	4	5	6	7	7
<b>ARROPADENDAK</b>	10	6	4	5	5	5	2	1	1	3
<b>MERTZERIAK</b>	5	2	2	2	1	1	1	1	4	2
<b>ZAPATADENDAK</b>	4	2	0	1	3	1	1	1	2	2
<b>Denetara</b>	<b>60</b>	<b>40</b>	<b>24</b>	<b>23</b>	<b>20</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>14</b>	<b>19</b>	<b>19</b>

Udaletan jasotako datuak

**Bakarrik 5 udalherri horietan, eta beti ere zerrenda honetan aipatutako denda klaseen artean, 2003an 113 denda zeuden zabalik, 1997an zeudenak baino 28 gutiago. Beran, lbardingoak ez dira kontuan hartu.**

## Urtetik urtera denda guttiago

Nafarroako ipar-mendebaldeko udalherri handienetako datuek argi erakusten dute zein den azken urteotako joera: generalean, urtetik urtera denda gutiago dago gure herrietan. Beharbada, joera negatibo hori nabarmenagoa da Baztanen (-%33), Leitza (-%22) eta Donezteben (-%15), eta apenas nabaritzen da Beran (-%4) eta Lesakan (=). Bost udalherriak batera hartuta, halere, eta bakarrik goiko taulan ageri diren epigrafeei erreparatu, azken sei urteetan 28 denda (-%20) itxi dira. Izan ere, hiri handietako merkataritza gune berriek herrietako zerbitzu sektorea osotara afektatzen duen arren, bereziki nabaria da janari eta jantxidendetan.

### “UDALEK KEZKATU BEHARKO LUKETE DAGOEN EGOERAREKIN”

Nafarroako Merkataritza Federazioak kudeatzailearen den Elisabet Azkaratek kezka handiarekin ikusten du egoera, eta udalek horretan oraindik ez inplikatu izana, arazo honen inguruan dagoen kontzientzia faltaren adierazletzat jotzen du. *“Kezkagarri iruditu zaigu, berriki Baztanen egin duten Plan Estrategikoan, konparaziora, zehazki ez aztertu izana merkataritzaren arloa.*

*Ageri denez, udalak ez dira konturatzeko zein garrantzitsua den zerbitzu sektorearen dinamismoa atxikitzea eta indartzea, eta pentsatzen dute komertzioa berez sortzen dela, zerutik etorria bezala”*.

### KANPOAN EROSTEKO OHITURA ALDATZEA ZAILA IZANEN DA

Merkatarien Federazioak kudeatzailearen ustez, udalek ohartu behar dute komertzioak ere bultzatu eta lagundu behar direla. *“Behin herriko jendea ohitutzen baldin bada herrietik kanpo erosten, gero ohitura horiei buelta ematea oso zaila izanen da. Eta ez hori bakarrik: ohitura hori indartu ahal, gero eta kapital-ihesa handiagoa gertatuko da herrietatik hirietara”*. Nafarroako Merkataritza Federazioan ditzuten datuen arabera, kapital-ihesa Iruñerria baino gehiago Gipuzkoa eta Lapurdi kostaldeko hirietara bideratzen da gaur egun. *“Datu honek, berez, udalen kezka sortarazi beharko luke”* dio Elisabet Azkaratek. Joan den urtean Baztan-Bortzirriak-Leitzako herritarrek 16,8 milioi euro gastatu zuten euren herrietatik kanpo egindako erosketetan, gastu osoaren % 37a, Federazioak datuen arabera.

## Iaz 16,8 milioi euroko kapital-ihesa

Leitza-Baztan-Bortzirriak eremuko datuei begiratuz, 2003an 16,8 milioi euro gastatu ziren eskualdetik kanpo; hau da, eskualdeari zenbatu zitzaion gastu osoaren %37a. Horrelaxe ageri da Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbararen enkarguz CIESean joan den urtean egindako ikerketan.

Kapital-ihesarik handiena Leitza gertatu zen. Denetara 9,6 milioi euroko gastua zenbatu zitzaion iaz Leitza-

ri, eta leitzarrek egindako gastu horren erdia (%50) herrietik kanpo egin zuten. Hurrenkeran Baztan eta Bortzirriak dauke ondortik. Baztanen zenbatutako 13,8 milioi euroko gastu osotik 4,6 milioi euro Baztandik kanpo gastatu zuten baztandarrek (%33). Bortzirrietan, azkenik, 21,9 milioi euroko gastua zenbatu zen 2003an, eta kopuru horretatik 7 milioi euro (%32) kanpoan gastatu zen, Gipuzkoako auzo-herrietan nagusiki.

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 6.000 ale

ttipi-ttapa

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa:(0034) 948 63 54 58

Faxa:(0034) 948 63 54 57

erredakzioa@ttipi-ttapa.net

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arotzena.

**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Raket Gofii.

**Kolaboratzaileak:** Raket Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreketa eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Begoña Larralde Ibarrolari samintasunez

Beste jende asko bezala, zu ere behar baino lehen joan zara gungandik eta bakartasunik bakarrenean utzi gaituzu.

Bizitzaren azterketa bikain egiten ari zinen, baina ez dizute denborarik eman proba behar bezala bukatzeko. Dena den, egin duzun zati hori hagitz ongi egin duzu.

Zu ezagutzeko zorte on eta oparia izan genuen. Nekez ezabatu du denbora luzeak gure buruetatik zure aurpegi atsegin eta alaia. Zaila izan da ahaztea zure begi distiratsu eta adierazgarriak. Luzaro iraunen du bizirik gure gogoetan zure irribarre eztiak. Zure ezpainenatari jarriatzen zen Arantzako euskara gozoak denok aberastu gaitu; bere doinu ederra beti eramanen dugu gure entzumenean.

Eta hoberena, denekin partekatu duzun adiskidantza. Zure bizitza ez da alferrikakoa izan. Arrasto handiegia utzi duzu jende askorengan guk zu ahanzteko. Josu izanen dugu zure irudirik fidelena.

Arantzako goiko atsendenleku lasai horretan opa dizugu betiko bakea topa dezazun, Ekaitza mendi zoragarria agerian duzula, maite zaitugun guztion laguntzarekin eta hainbeste estimatzen zenuen zure panpina ororen presentziarekin. Gure musurik goxoena zuretzat. Sarri arte!

Eta zuretzat, Maritxu Ibarrola (ez zaitugu ahaztuta): beti izan zara adoretua; orain ere seguru

gaude izanen duzula kement handia. Ez etsi eta eutsi goiari! Har ezazu musu bero bana!

Josetxo Larretxearen familiari, Faustinatori, Juanitari, Xatur, Mattin eta familiako gainerako guztiei besarkada handi bana.

Xanti

Begiristain Madotz

### Etxalarko EAren oharra

Altxatak EA aipatzen duen gutunaren aurrean, Etxalarko EAko taldeak xehetasun batzuk eman nahi ditu:

1.- EAK Kultur-Etxeko giltzak Udalak kontrolatuak izan ditzen defenditzen du. Honek ez du erran nahi inori sartzen eragozten zaionik, alderantziz. Edozein taldek nahi duenean erabili ditzake instalazioak. Gure ahaleginak hain garrantzitsua den eraikin baten giltzen kopia banatuak egon ez daitezten bidetik doaz, gerora hori arazo bihurtu bait daiteke zerbait gertatzen bada. Arazoa ez da Altxatak giltzak edukitzea, baizik gaia ez bada ongi erregulatzen giltzen kopia banatuak ibiltzeak arazoak sor dezakela.

2.- Altxata Kultur Elkartek EAren babesa etalaguntza osoak dauka. Etxalarrengatik egiten duen gauza guzientzat ez ezik, bere idatzian aipatzen duen bezala, gure taldeak Udalan euskera indartzeko ekitaldi bat antolatzeke bere laguntza behar izan duenean beti prest agertu direlako ere.

3.- EAK ez du hasi ez duen eztabaida artifizial

honekin jarraitu nahi, eta gure aldetik behintzat, ez da intenziorik izan, eta ez da izanen ere.

Etxalarko Eusko Alkartasuna

### Oztopo guztien gainetik, animo!

Gutun honen bidez azken egun ahaztezin hauen errebaso eta hausnarketa txiki bat egin nahi nuke. Aldez aurretik aipatu, helburua ez dela inor minduta sentitzea, baizik eta herri honetan sektore garrantzitsu baten bizi duen bazterketa salatzea eta erantzuleak nor diren azpimarratzea da. Labor bada ere, lehenbizi ohikoegi bihurtzen ari zaizkigun hauteskunde antidemokratiakoen inguruan ariko naiz.

Denok ikusi ahal izan dugun bezala, Ezker Abertzaleak izugarriko bazterketa jasan behar izan du, udal hauteskundeetan pairatu zuen bezala. Telebista kate desberdinetan apartheida, ekitaldien debekua, adierazpen askatasunaren urraketa... Lesakan ere, holako pasarte batzuk bizi izan dira, baina horretan ez dut sakonduko (nahiz merezi izan) irakurlearen arreta ez desbideratzeko. Jakina da, aurrean idatzitako gehiena ezaguna dugula, baino duen garrantzia eman behar zaio, hots, herri honetan, Euskal Herrian, oinarriko eskubiak etengabe urratzen jarraitzen dira. Bitartean hau moldatzeko ardura duen "klase politikoak" (PNV, UPN, PSN, Aralar, EA...) ez ikusiarena egiten jarraitzen du eta gainera egoeraz baliatzen dira, beren interese

sen mesederako. A zer demokrazia!

Hauteskundeetatik kanpo baina aldi berean hauteskundeekin lotura zuzena izan duten gertakari bat ere azpimarratu nahi nuke. Madrilgo atentatu bortitza alegia. Nere herrian "klase politikoak" deituta antolatutako mobilizazioak eta botatutako gezur guztiak ikusirik, gogoeta bat egitera eraman naute. Lehenik, minduta sentitu naizela erran behar dut. Minduta hainbeste langileen heriotza ikusiz, minduta Lesakako udalak Madrilgo biktimekin izan zuen elkartasuna bere herrikoekin ez duela ikusita, minduta poliziak bi Euskal Herritar erail eta inork ezer gutxi egiten zuela ikusita. Ez al dira ba arazo politikoak han eta hemen mundua behin eta berriro astintzen dutenak? Beraz, arazo politiko hoiek ez moldatzearen erantzukizuna politikariena izango da ezta? Baina, gure herrian egun horretan antolatutako ziren mobilizazioek kontrako norabidea hartu zuten, "politikari" gezurti eta iruzurle hoiaren aurka jo beharrean. Ezker Abertzalea izan baitzuten jo puntu. Orain hila beranduago argiago egongo da nork duen erantzukizuna ezta? Oraindik garaiz gaude, hartu dezagun norabide zuzena eta mobilizazioa gaitzen.

Horrelako momentu zikin eta gogorak bizi eta gero ezin barruan sentitzen dudana aipatu gaiteke. Lehenbizi, Ezker Abertzalearen porrota desiatu eta desiatzen duen guztioi gauza bat; Ezker Abertzalea hurbiletik ezagutzeko aukera izan dut azken urte haueetan eta herriaren eta he-

• IRAKURLEAK MINTZO •

rritarren aldeko lanetan murgildurik dabil. Langileen eskubideen aldeko lanean, gizon eta emakumezkoen berdintasunaren aldeko lanean, zapalkuntzari duintasunez erantzuteko lanean, ama-lurraren aldeko lanean, herriarenak diren eta gehiegi sufritzen ari diren preso eta iheslarien aldeko lanean, herri bezala ditugun eskubideen aldeko lanean, gure hizkuntzaren ofizialtasunaren aldeko lanean, azken finean askatasun osoaren aldeko lanean. Hori da duen armarik indartsuena, herriaren aldeko lana. Eta hori garaitezina da, herrietan sustraiturik baitago, eta are gutxiago gezurren bitartez. Jakin ere badakit, batzuk, orain arteko ildo bera jarraitzen ahaleginduko direla, hau da, errepresioa, inposaketa, ustelkeria, eskubideen urraketa... baina horrek ez du sufritendu gehiago besterik ekarriko. Beraz nere aholkuak zerbaitetarako balio badu, berandu izan baino lehen egin deza-

gun ahalegin bat eta har dezagun elkarrizketaren bidea, gauza askotxo baitago moldatzeke. Demokrazian oinarrituko den gizarte bat besteak beste.

Bestalde, nik bezala ezker abertzalearen lanean sinisten duzuenoi animoak eman nahi dizkizuet, animoak lehen aipatu ditudan lan hoietan eragiteko. Helburua inoiz baino argiago dago eta nahi baino mantxoago baldin bagoaz ere bidea egiten ari gara. Bakoitzak ahal duen horretan, baino ez etsi, gure jarduera eta indarrean baitago gako.

Bukatzeke, elkartasunez beteriko besarkada bat, bota diren gezurguztien biktima izan zaretenoi, bereziki espainiar zein frantziar kartzeletan dauden Euskal Preso politikoei.

**Iban Maia Ormazabal**  
(Lesakako Herria Aintzinerako kidea)

**Espetxetara martxa nazionala**

Heldu den apirilaren 23rako, Algeciras eta Bapaumeko kartzeletara MARTXA NAZIONALAK antolatuta dira. Ekimen hau, abenduan Kurasaalean publikoki agertutako preso politikoen aldeko dinamika berria kokatzen da. Hau da, Euskal Preso Politikoen Kolektibak dituen eskubide politikoen onartzea eta eskubide hoiek bermatzeko Euskal Herrian egotearen beharra gizaratzea. Bidenabar, M-11an Madrilan izandako atentatuaren ondoren, kartzeletan dauden preso politikoen kontrako eraso larriak salatu nahi dira. Eraso hauek Ibaurretxe, Nafarroa Bai, Ezker Batua, PSOE, PP eta bertze "bakezaleak", Ezker Abertzalea eta ETA seinalatzean, Euskal Preso Politikoa jopuntuan jartzeagatik gertatu dira. Aldi berean, sakabana-ketaren areagotzea (Euskal Preso Politikoen Ko-

lektiboa osatzen duten 700 presotik 9 soilik daude Euskal Herriko kartzeletan) eta isolamendu politikaren ondorio larriak salatzea du helburu martxa honek.

Beraz, martxan parte hartzera gonbidatzen zaitugu, martxa honen garrantziaz jabetu zarela. Edozein arrazoi dela eta martxara ezin baduzu joan, bonolaguntza erosiz, martxara joan nahi duena eta diru faltagatik posible ez duena laguntzen ahalko duzu.

Bertzerik gabe, animatu eta parte hartu.

**Baztango Amnistiaren Aldeko taldea**

**Euskaldun sentitzea, euskaldun aitortzea**

Aunitzetan aitortu izan dugu gure Euskaldun sentimendua, ttikitan eskolan, gure lagunen artean, senideekin, lankideekin...

Ez al da publikoki eta ofizialki gure Euskal nortasuna adierazteko garaia?

Bai Euskal Herriari taldeak EHNA, gure nortasuna eta naziotasuna aitortzen duen agiria, bul-tzatzen du. Utzi ditzagun alde batera bereizten gaituzten gainerako ideia, sentimendu eta beldurrak eta aurrera egin dezagun benetan batzen gaituenarekin, hau da, guztiok euskaldunak izan eta sentitzen garela.

Gure baitan dago EHNA-ren onarpena eta erabilera udaletxe, denda, banketxe, polikiroldegi eta abarretan, Euskal Herriko hainbat herritan ari diren bezala.

Bazter itzazue utzikeria eta alferkeria eta anima zaitezte zuen EHNA eskatzera, horretarako propio hilabeteko azken larunbatero Berako Udaletxean idekitzen den bulegora hurbilduz, goizeko 11:00ak eta 13:00ak bitartean.

**Berako BAI EUSKAL HERRIARI taldea**

**ARMUA**  
Jatetxea  
Zugarramurdiko karretera 3. Km  
© 948 599 131 - URDAZUBI

**LARRALDEA**  
**SAGAROTEGIA**  
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua  
Telleria Auzoa • LEKAROZ  
© 948 452121



**Helbide berria:**

Zalain auzoan,  
Aceralia fabrikaren parean  
© 948 63 02 40 • Mug.: 627 622333  
**BERA**

**DROGUERIA**  
**MOLINERO**

**PINTURAK**  
DROGERIA

- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guziak

**2.000 kolore**  
baino gehiago lortzen ahal duen makina  
**10 minututan**  
zuk nahi duzun kolorea  
*Profesionalentzat prezio berezia*

## KULTURA

# Xabier Silveira lesakarrak irabazi zuen Nafarroako bertsolari txapelketa

Martxoaren 28an jokatu zen finala Lesakako Zambra aretoan

## ttipi-ttapa

Xabier Silveira lesakarra nagusitu zen martxoaren 28an bere herriko Zambra aretoan jokatu zen Nafarroako Bertsolari txapelketako finalean. Seiko motzeko ariketan ihes egin zion bertso batek, baina halere nahiko aisa nagusitu zen, batez ere kartzelako gaian egindako lan borobilari esker.

Txapeldunak denera 426,5 puntu atera zituen, bigarren sailkatu zen Estitxu Arozena baino 18,5 gehiago. Bi bertsolari hauek izan ziren 400 puntuko muga gainditu zuten bakarrak.

Hirugarren Bittor Elizagoien arraiotzerra sailkatu zen, gorabeherarik gabeko saioa egin ondotik, 394,5 punturekin eta laugarren postua bertze baztandarrentzat izan zen, txapelketan eta finalean debuta egin zuen Jon Barberena elizondarrentzat, sei puntu eskasera. Bosgarren eta seigarren postuak puntu



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

1997tik ihes egin zion txapelari goxo kantatu zion Silveirak azken agurrean.

erdiren gorabehera banatu ziren, Juan Mari Lopez lesakarrak 384 lortu zituen eta 383,5 Xabier Legarreta aranoarrak. Zazpigarren postua Manolo Arozenarentzat izan zen 379,5 punturekin eta zortzigarrena Joxe Juan Zubieta Etxaberentzat, 376 punturekin.

Hotz eginagatik jendea aunitz bildu zen Zam-

bran eta saioak aitzinera egin zuen neurri giroa ere berotzen hasi zen. Bertsolariak, giroa bezalaxe, nahiko hotz hasi ziren eta zortziko nagusiko lehen ariketan ez zuten gozatu. Preziki Jon Barberena debutaria izan zen lehen saio honetan bertsolari txalotuena. Zortziko txikiko lanean finago ibili ziren guziak. Aipatze-

koak dira Elizagoien eta Lopezek eta Manolo Arozena eta Silveira bikoteek egindako lanak.

Puntuari erantzuten Elizagoien eta txapeldunaren bertsoak izan ziren finenak.

Gero eta maila politagoa hartzen ari zen finala eta ondorengo ariketan, seiko motzean aditu ziren finaleko lanik onenetakoak. Bittor

Elizagoien-Manolo Arozena senar-emazteek, Silveira-Lopez eskola zaharreko apeza eta irakasleak edo Legarreta-Estitxu Arozena aita-ala-bek lan polita egin zuten.

Bertsolariek egin zuten azken lanean, kartzelakoan, Xabier Silveirak bertzeek baino hobeki kantatu zuen. Inguruan gero eta gehiago somatzen den deprezioaren inguruan bi bertso borobil osatu zituen Silveirak zortzi puntutak edukiz ongi hornituz. Ondotik etorri ziren bertsolariak ere arriskatu zuten kartzelean, zazpi puntuko doinuekin aunitz, baina ez ziren Silveiraren mailara ailegatu.

Azkenean, beraz, txapela Silveirarentzat. 1997an lortu zuen azken aldiz txapela jantzea eta geroztik ihes egin ziola kontuan hartuz, goxo kantatu zion, Beñat lagunari eta borrokan ari diren guziei eskaintza berezia eginez.

**Alzuri**  
 Sukalde tresneria eta opariak  
 Landare eta loreak  
 Tfnoa: 948 630 370  
 BERA

**Lanchas**  
 PARKETAK - TARIMAK  
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
 ESTALDURA OROKORRIAK  
 Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

**ZJ**  
**Zalain**  
 jatetxea  
 Tfnoa: 948 630 899  
 Bera - Nafarroa

TEL K  
 K MISET K  
 ISE  
 TXISKE  
 N AI UZUNK U U, NEU I CT (ISEINU) ERIN  
 Ez 1 2 h T l- F x 3 15 21

**SAROBÉ**  
 okindegia  
**SANDERS Pentsuak**  
 Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



**BERA**

## Apirilaren 24an ospatuko da Gazte Eguna

Pintxo lehiaketa, bazkaria, oka, bizi-bertso-poteoa, karaokea, afaria eta kontzertua izanen dute

**Amaia eta Ainhoa**

Berako Gazte Asanbladak apirilaren 24rako antolatu du Gazte Eguna. Ekitaldiz beteta dator egun hau: goizeko 11:00etan aurkezpena eginez emango zaio hasiera egunari. Eguerdiko 12:00etan Rikardo Barojako frontoian bazkaria prestatuko dute eta pintxo lehiaketa egingen da. Lehenago prestatutako janarekin bazkaria 13:30etan izanen da. Arratsaldeari begira, 15:30etan oka erraldoia jokoan aritu ondotik, 17:30etan bizi-bertso-poteoan ibiliko dira herriko ostaturan eta 20:00tan karaoke saioa egingen da frontoian baita ere. Afaria Rikardo Baroja eskolako jangelan izanen da 20:30ak aldera, karaokea akautzean, eta egunari akabera emateko kontzertu bat antolatu da. Arratseko 23:00etan hasi eta hortik aintzinerara Kerobia eta Berako taldeak ikusi eta aditzeko aukera izanen da.

**Liburuaren Eguna**

Apirilaren 23an, ortziralan, ospatuko da aurtengo Liburuaren Eguna. Egun horretarako Berako Kultur Batzordeak eta liburutegiak Koldo Amestoi ipuin kontalaria gonbidatu dute. Zehazki "Biderdi" ipuin ikuskizuna aurkeztuko du Kultur Etxean 18:30etan eta sarre-ra dohakoa izanen da. Aldi berean apirileko hilabete guztian Berako liburutegian kutxa bat jarri dute Berako liburutegiko irakurleen gustu literarioak jasotzeko, hau da, liburu gustukoenak, autore gustukoenak, irakurtzea atsegin duten genero edo liburu motak, interesatzen zaizkien gaiak eta literaturari buruzko zein ekitalditan hartuko luketen parte eta gisakoak. Gainera, fitxa betetzen dutenen artean apirilaren 30ean liburu sorta bat zozketatuko da. Bertalde, apirilaren 30ean Ur Apalategi idazleak



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Labiagako haurrak legalizazioa eskatuz**

1994an hasi ziren Labiagan DBH ematen eta 1995eko irailean ukatu zien lehendabiziko aldiz Nafarroako Hezkuntza Departamenduak etapa hori emateko baimena, instalakuntza aldetik zituzten ustezko gabeziengatik. Geroztik 10 urte daramatza Labiaga Ikastolak legalizazioa lortzeko ahaleginak egingen. Une honetan bi errekurso ditu abian ikastolak: bata Madrilgo Auzitegi Gorenean dago eta bertzea Nafarroako Auzitegi Gorenean. Orain sententziaren zain daude eta aldeko erabakirik iritsiko ez balitz, egoera aldrebestuko litzateke. Berriki, 2001 eta 2002. urteetan Ikastolako DBH legeztatzeo ukapenari aurre egiteko paratuak zituzten bi helegiteak ezetsi ditu Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak. Ikastolako Batzordeak bide legalari eustea erabaki du eta Kasazio Helegiteak paratu ditu bi ebazpen horien aurka. Birtartean, Labiagako ikasle, irakasle eta gurasoak ikastolaren legalizazioaren alde borrokan ari dira, eta argazkian ikus daitekeen bezala, Lesakan apirilaren 4an ospatu zen Hizkuntza Eskubideen Egunean "Labiaga Ikastola Legalizazioa" lemarekin parte hartu zuten manifestazioan.

"Gure gauzak S.A." liburu berriaren aurkezpen ekitaldia egingen du 20:00etan Kultur Etxean baita ere. Aurkezpen ekitaldi honetan Lami-xine B.A.T. Berako antzerki taldeko kideek hartuko dute parte.

**Iratxe Kontsumitzaile Elkarte**

Iratxe Kontsumitzaile Elkarteak zerbitzua eskainiko du hemendik aitzin Bortzirietan. Beran eta Lesakan hila-betean behin izanen di-

ra. Berako Herriko Etxean hilabetean aste osoa duen lehen asteko ortziraldean, 10:00etatik 13:00etara, ordua eskatuz 948 630005an.

**Haur kantari Txapelketa**

Joan zen apirilaren 4an, igandearekin, egin zuten Iruñeako Gaiarre Antzokian Nafarroako Haur Kantari Txapelketako finala. Berako haur batzuk parte hartu zuten eta postu onak lortu zituzten. Axuriak taldeak txikiek osatutako

taldeen artean hirugarren postua lortzeaz gain, entzuleen saria ere eramane zuten. Bertzetik, Maddi Uranga lesakarrak eta Amaia Espinosa beratarrak bikotearen egokitasunagatik saria eskuratu zuten.

**Kitarra kontzertua**

Datorren apirilaren 27an, asteartean, Stefanoraponi gitarjole Italiarraren kontzertua ikusi ahal izanen da Berako Kultur Etxean 20:00etan. Sarrera dohainik.

**ANSONEA** jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

**KATERA - BIKE**

Bizikleta Tailerra  
errepide, mendi, trekking  
eta haurrendako bizikletak  
Arropa eta osagarriak  
Salmenta eta konponketa

Kanttonberri 1, bis • BERA  
Fax - Tel: 948-631218

**BAR BOTXO OSTATUA**

☎ 948630052 • Zalain • BERA

## LESACA

# Sanferminetako kartel eta azal lehiaketara lanak aurkez daitezke

Laurehun euroko saria izanen dute bi irabazleek

## Aitor AROTZENA

Udalak 2004ko Sanferminetako programaren azalak eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du. Kartelak kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz. Azalak, berriz, marrazkiz edo argazkiz eginak aurkezten ahal dira. Neurriei dagokienez, azalak 25x20 cm. izanen ditu osotara, 2'5 cm.ko ertza bazterretan eta irudia edo argazkia barrenean. Kartelak, berriz, 50x40 cm. izanen ditu osotara, 1'5 cm.ko ertza utziz. Derrigorrez, bertan agertu beharko du «Lesaka. 2004ko Sanferminak» esaldia.

Gaia norberak nahi duena izaten ahal da, beti ere zertarako den kontuan hartuz. Lanok jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute eta partehartzaileak Lesakan jaiok edo bertan bizi direnak izan beharko dute.

Lanak gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz aurkeztu beharko dira. Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu, beti ere



ARGAZKIA: AITOR

**Martxoaren 27an Batzoki Elkarteak Lesakako Udala eta Beti gazte elkartearen laguntzaz, adin guziko haurrentzat bizikletaz gozatzeko arratsaldea antolatatu zen, Irain eta tantirumairuko Guraso Elkarteek prestatutako Kotxerik Gabeko Egunei segida emanez. Euskaltel taldeko Verdugo, Landaluze, Arretxe eta Galpadoro eta Lampreko Patxi Vila eta Juanma Garate txirrindulari profesionalekin batera, Aitor Oroza eta Santiago Lopetegi txirrindulari paraolimpikoak eta infantil mailako Irabia taldeko Ander Maritxalar lesakarra eta Daniel Ariztia beratarrak, gazte mailako Irabia taldeko Joseba Errandonea eta Joseba Larralde beratarrak eta afizionatu mailan ari den Unai Barazabal azpilkuetarra izan ziren ekitaldian. Bizikletak kontrolatzen ikasteko Ginkana, motxila eta mailloten zozketa, herrian barna itzulia eta txirrindulariekin solasalditxoak izan ziren egitarauaren barrenean.**

apirilaren 30eko 13:00ak baino lehen. Aurkezten diren lanak Sanferminetako programan argitaratu ahal izanen dira eta sarituak udalaren esku geldituko dira.

Sariei dagokienez, kartel lehiaketako irabazleak 400 euro jasoko ditu eta bigarrenak

200 euro. Udaleko ordezkariak eta artea eta kultura munduko lesakarez osatutako epaimahaiak erabakiko du kartel lehiaketa eta lehen saritua argitaratuko da. Azal lehiaketan ere lehen saria 400 eurokoa izanen da eta 200 eurokoa bigarrena.

Aurkeztutako lanak ikusgai egonen dira maiatzaren 5etik 14ra Beti Gazte elkartearen egoitzan eta epe horretan, jendeak botoa eman ahal izanen du azala aukeratzeko. Lehen saria aitzineko azalean joanen da eta bigarrena gibebekoan.

## FLASH

## Rafa Maritxalar Herri Lasterketa maiatzaren 2an

Batzoki Elkarteak, Udalaren laguntzaz hamargarren aldiz antolatutako Rafa Maritxalar Herri Lasterketa maiatzaren 2an egingen da. Goizeko 10:00etarako hasiko dira kategoriatuak lanean eta eguerdian egingen da 8 kilometroko proba nagusia, kadete, junior, junior, senior eta beterranoen mailarekin.

## Hondakin solido desegokiak eta plastiko boloak

Hozkailu zaharrak eta gisako hondakin solido desegokiak uzten dituzten pertsona batzuk maiz ikusten direla eta Mankomunitateak horretarako zerbitzu berezia duela jakinarazi du udalak. Azken batzarraren alkateak erran zuenez udazkenetik kontrolatzen dute gai hau. Hiruzpalau egun kendu gabe pasatzen dituztenean deitzen dute Mankomunitatera. Abudo xamar kentzen ez badituzte, argazkiak ateri eta txostena egingen dute. Bertzalde, plastikozko boloak egingen dituzten baserriekin zerrenda bat egitea proposatu zen batzar berean. Plastikoa gordezko informazio bidaltzea eta gero Mankomunitateko zerbitzuek bilduko dutela jakinarazi zen eta horren inguruan kanpaina bat egin beharko dela azpimarratu zuen alkateak.

Bititria 41 • 948 637518 • LESAKA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

Tfnoa: 948 637 127  
LESACA

LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 948 627 514  
Beheko Plaza 8, LESAKA

Lore eta landareak  
Frain auzoa - LESAKA  
Tfnoa: 948 637826



## BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

# Jakinarazten dut:

2004ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

## Ordaintzeko era:

### Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

### Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

## Ordaintzeko epea:

- 2004ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2004ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20 errekaruarekin kobratuko da.

*Bortzirieta, 2004ko apirilaren 1ean*

Presidentea  
Miguel M<sup>a</sup> Irigoien Sanzberro

## 2004. URTEKO TASAK

### ERABILTZAILAEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	EUROAK	
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez: .....	62,66	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak: .....	53,26	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak: .....	43,86	
<b>1. Merkataritza eta zerbitzuak.</b>		
Elikagaien eta elektragailuen sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak: .....	62,66	
<b>2. Merkataritza. Elikagai dendak</b> (harategiak, arraindegia, janari dendak), elektragailu dendak eta farmaziak: .....		124,88
<b>3. Merkataritza. Autozerbitzuak: .....</b>		187,50
<b>1. Ostalua.</b> Noizbehinka irekitzen diren ostalua eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m <sup>2</sup> ko edo gutxiagoko azalera dutenak: .....		124,88
<b>2. Ostalua.</b> 30m <sup>2</sup> baino azalera handiagoko ostalua eta janari denda daukaten ostalua: .....		250,12
<b>3. Ostalua.</b> Pub eta diskotekak: .....		312,48
<b>1. Jatetxea.</b> Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkarre gastronomikoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: .....		312,48
<b>2. Jatetxea.</b> Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: .....		562,52
<b>Landetxeak. ....</b>		125,38
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak: .....	106,58	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak: .....	87,76	
<b>1. Hostala.</b> Hamar logela edo gutxiagokoak: .....		437,30
<b>2. Hostala.</b> Hamar logela baino gehiagokoak: .....		624,82
<b>Merkataritzako saltokiak,</b> jatekerik gabekoak: .....		624,82
<b>Merkataritzako saltokiak,</b> jatekxedunak: .....		937,30
<b>Lantegiak,</b> lau langile bitarte: .....		62,66
<b>Lantegiak,</b> 5-10 langile bitarte: .....		124,88
<b>Lantegiak,</b> 11-30 langile bitarte: .....		312,48
<b>Lantegiak,</b> 31-60 langile bitarte: .....		624,82
<b>Lantegiak,</b> 60-150 langile bitarte: .....		937,30
<b>Lantegiak,</b> 150-300 langile bitarte: .....		1.776,06
<b>Lantegiak,</b> 300 langile baino gehiagorekin: .....		2.617,82
Zuzenean zabortegira botatzea; prezioa metro kubiko bakoitzeko .....		27,00
Neumatikoak zabortegian uztea; prezioa kilo bakoitzeko .....		0,24

## ETXALAR

# Inor ez da aurkeztu udan igerilekuen mantenuaz arduratzeko

Etxarte izanen da babes ofizialeko etxebizitzak egiteko arduraduna

## Joseba eta Nerea

Joan den otsailean ireki zuen udalak igerilekuan funtzionamendu, garbiketa eta mantentzen lanak egiteko esleipenaren deialdia. Martxoaren 17an akabatu zen lanpostu honetan interesatutakoek izena emateko epea eta inork ez zuen izenik eman. Udal idazkaritzan egon dira baldintza guztiak interesatuen eskurara baina bertan erran digutenez inor ez da galdetzerara hurbildu. Honen aitzinean, udala aukera desberdinak aztertzen ari da igerilekuko bi langile horien kontratazio-rako.

## Babes Ofizialeko Etxebizitzak

Babes Ofizialeko Etxebizitzen inguruan informatzeko bilera deitu zuen udaleko Herri Taldeak apirilaren 2an. Afera honen inguruan deus konfirmatua ez baldin badago ere, udalak daukan informazioa



UTZITAKO ARGAZKIA

**Bortz egun pasatu zituzten Izaban Landagain eskolako hirugarren zikloko ikasleek, Bortzirietako bertze ikastetxetakoekin batera, Aste Zuriaren barnean. Honela, elurretan ekintzak egiteaz gain, bertze herrietako neska-mutilekin harremanak sendotu dituzte.**

eman zion bertan bildu zen jendeari. Aipatuenez, lau urte dira etxebizitza hauek egiteko proiektua martxan paratu zela eta hasiera batean obra Zaratiegi Anaiek egin behar bazuten ere, konstruktora hau desegin ondotik, Etxarte enpresak hartu zuen bere gain lana. Orain, denbora bat joanen da Etxartek lan bu-

rokratikoak akautu eta obran hasteko. Edozein moduz, alkateak erran zuenez udalak interes berezia du Babes Ofizialeko Etxebizitza hauek egiteko, herriangisa honetako etxeen beharra ikusten duela.


## Bataioak

Joan den apirilaren 11n, Bazko Igandeare-

kin, ospatu ziren bataioak. Aurten hauek izan bataiatutako haurrak: Eguzkitzako Janire Telletxea Irazoki, Baratzeneako Manex Leza Iturbide eta Tximista Bordako Irati Elizalde Mitxelena eta Bida-buruko Naiara Otxoteko Perugorria.

## Herriko eskolako haurrak Izaban

Landagain eskolako 3. zikloko ikasleek bortz egun pasatu zituzten Izaban. Bortzirietako bortz ikastetxetako ikasleak bildu ziren Aste Zuriaren antolatutako bidaian joateko. Martxoaren 29 arratsaldean elkartu ziren Izabara joateko eta aste osoan zehar iraupe-neko eskian aritu eta gero apirilaren 2an buel-tatu ziren etxera. Irakasleek erran digutenez, modu honetako ekintzak haurrak bertze herrikoekin dituzten harremanak sendotzeko balio izaten dute.



## PERTSONAIA

Joxe Mari ARBURUA

## Igandetako mendi-irteeren arduraduna

Joxe Mari Arburuaren ekimenez eta Altxata Kultur Elkartearen laguntzaz, igande goizetan mendi-irteerak antolatzen hasi ziren joan den otsail honetarako. Orduztik astero-astero herriko leku desberdin batean egon dira bildutako lagunak eta Joxe Mari gustura dago bai ibili den jende kopuruarekin eta bai irteeretan sortu den giroarekin. "Etxalarraren mendirako afizio tiikia zegoela eta gogoratu zitzaigun mendi-irteera hauek antolatzea. Ikusten genuen gazte aunitzek herriko mendi, auzo eta xoko aunitz ez zituztela inoiz ikusi eta horrela mendian ibiltzeaz gain lekuak ezagutzeko modu bat ere badira irteera hauek. Hasi zirenetik hainbat lekutan egondu dira. "Loitan, Azkuan, Infernuko Errotan, Mendikarrin, Zentinelan, Atxurian, Alkarrantzen... oraindik maiatza erdirarte segituko dugu". Nahi duen guzietan iriakiak daudela erran digu Joxe Mari eta irteeren berri kartel informatiboetan emanen dutela astero-astero.

**JAKINE - GOZOTEGIA**

Altzate, 19-948630786 • BERA

**LAURETAN**

© 948631076 • BERA

**TALLERES BERRIZAUN**

GASOLINERKA LESAKA

IMANOLA, TELLETXEA ZUZUYA

**Gasola etxera eramaten dugu**

Tel. 948 63 74 60      31770 Lesaka (Nafarroa)

**PIKABEA**

harategia • urdaitegia

janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

**HERRIKO**

IZAYU - JATETxea

Askain, 11 • 948 63 34 00

Tfnoa: 948 63 34 00

## IGANTZI

# Herriko ur-sarea moldatzeko lanak aurten hastea espero da

Proiektua nork eginen duen ari da aukeratzen Udalbatza

### Oskar TXOPERENA

Jakina denez, egoe-  
ra txarrean dago herri  
barreneko ur-sare ge-  
hiena. Arrazoi bat edo  
bertzerengatik, urte  
gehienetan lehertu egi-  
ten dira karriketan ba-  
rrena ura daramaten ho-  
di edo tuboak. Izan ere,  
hodi nagusia hagitz za-  
harra da, eta iturginek  
diotenez, zenbait zati-  
tan barrenetik ixteko zo-  
rian dago. Aste batzuk  
badira Nafarroako Go-  
bernuak sarea molda-  
tzeko dirulaguntza onar-  
tu zuela eta orain proiektu-  
a zein arkitektok egi-  
nen duen aukeratzen ari  
da Udalbatza. Aitzina-  
go, proiektua eginda-  
koan, emanen ditugu  
aurrekontu eta lanari bu-  
ruzko xehetasunak.

Gai honekin lotuta,  
zinegotziek Fraingo au-  
zotarrekin biltzeko as-  
moa daukate, auzoa  
anitz handitzen ari de-  
nez (Kopa eta Meakan-  
di aldera, batez ere), ura-  
rekin arazoak dagoe-  
neko hasiak direlako.  
Horretaz solasteko 23an



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Joseba Bertiz eta Unai Telletxea Belatek antolatutako txapelketan garaipena lortzeko atarian gelditu ziren, apirilaren 3an Zizur Nagusiko pilotalekuan jokaturako finalean. "Tikiak" kategoriko lehenbizikoa mailan jokatu dute txapelketa eta finalera arte partida bakarra zuten galduta, txapelaldun gelditu ziren Larunbe eta Espinal burlatarren aurka hain zuzen.

bilera izanen da Herri-  
ko Etxean, 19:00etan.

### Udaberriko Kultur Egunak

Aste hondar honetan  
izanen dira Euskara Ba-  
tzordeak lehenbiziko al-  
diz antolatzen duen  
Udaberriko Kultur Egu-  
nak. Ortziralean, 23an,  
hasiko dira bi ekitaldi-

rekin: 19:30etan "Alcer"  
Elkarteko kide batek or-  
ganoen donazioek duen  
garrantziari buruz  
emanen du hitzaldia Pa-  
rrokiko zentroan. On-  
dotik, 21:00etan, kantu-  
afaria izanen da Bilt-  
okin. Hurrengo egunean,  
larunbatean, haurrek es-  
kolan egindako zenbait  
lanen erakusketa iza-

nen da, eta ondotik opi-  
lak banatuko zaizkie be-  
gantzeko. Igandean, az-  
kenik, herri-kirol ekital-  
di handi batean, ome-  
naldia eginen zaio iaz  
hildako Miguel Angel  
Etxarte "Kaxot" kirola-  
riari. 50 kirolaririk goiti  
bertan izatea espero da.  
Ondotik, denak Biltokin  
izanen dute bazkaria.

## FLASH

### Igerilekuetako lana

Nafarroako Gobernuak  
arauak anitz gogortu di-  
tuenez, igerilekuak zain-  
du eta ostatu irekitze-  
ko lana aitzineko urtee-  
tako baldintzetan ez du  
inork hartu nahi izan, ez  
da eskaintzarik egin  
behinik behin. Gauzak  
erraztu nahian, lana bi  
zatitan banatzea era-  
baki du orain Udalba-  
tzak, alde batetik igeri-  
lekuaren zaintzaile edo  
"socorrista"rena, eta  
bertetik ostatu eta is-  
talazio zainketaren la-  
na. Azken hau hartze-  
ko eskaintzak egiteko  
epea ireki du, maiatza-  
ren 13a bitartean, ha-  
sierako salneurria 4.000  
eurotan paratuz. Lan ho-  
ni buruzko informazio  
gehiago behar duenak  
Herriko Etxera jotzea du  
hoberena, han emanen  
baitizkiote xehetasun  
guziak.

### Leire Arretxea zinegotzi berria

Apirilaren 7an Herriko  
Etxean egindako hila-  
beteroko udal bilkura  
izan zen Leire Arretxea  
Txoperenarentzat le-  
henbizikoa. Herri Tal-  
dearen ordezkoen ze-  
rendako lehenbizikoa  
izanik, dimisioa aurkez-  
tu zuen Bidaltxo Etxar-  
teren lekua hartu du Lei-  
rek eta bera izanen da  
orain zinegotzi.

**B** BERBIZUN  
Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak  
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
Altzate 17 • BERA • © 948 630 763

**OBRA PROIEKTUAK**  
✓ Etxe berriak eraikitzeko  
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik  
✓ Urbanizazio proiektuak  
✓ Obra-zuzendaritza  
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan  
**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa  
Bittiria, 45 • © 948 637 503 • **LESAKA**

**LESAKA**

## ARANTZA

# Herri Kirol Jolasetako alebin taldea Nafarroako txapelduna izan da

Beñat Mitxelenak Zizurko buruz-buruko lau terdiko txapelketa irabazi du

## Nerea ALTZURI

Apirilaren 4an, herri kirol jolasen final nagusiko Berriozarko ihardunaren ostean, proba konbinatuan, herriko alebinen taldea aurtengo garaile izan da. Sailkapen orokorra egiterakoan Arantza eta Berriozarren artean puntu berdinketa egon zen. Biek hamabortzina puntu eskuratu zituzten kanporaketa guzietakoak batuta. Berdinketa hori eman zela eta, bortz jardunaldietan eginiko denborak batu ziren eta denborarik onena Arantza taldeak izan duenez, txapeldun bera gelditu zen. Haur mailako proba konbinatuan, Putte-ri, Iñigo Aritza A eta Andra Mari taldeen gibeletik, aranztarrek laugarren postua lortu dute aurtengo lehiaketan. Kadete mailako herriko taldeak bigarren postuan bukatu zuen Berriozarko hondar kanporaketa, baina sailkapen orokorrean hirugarren tokian gelditu da



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Honako argazki hau Arantzako frontoian aterria da. Giro ederra zegoen frontoi barrenean, kanpoko elur eta euri erauntsiei aurre eginez. Joan den martxoaren 28an herriko frontoian aurtengo herri kirol jolasetako laugarren jardunaldia iragan zen. Jose Ramon Amoros eta Panttaleon Errandonea entrenatzaileekin ageri dira gaztetxoak. Bertan proba konbinatuan eta sokatiran aritu zirenak proba konbinatuan: Alebinetan, Ana Ixabel, Maitane, Amaia, Maider, Julen eta Itxaro. Haurren mailako taldean, Maider, Jon, Itziar, Jon, Unai, Maitane, Julen eta Ainara. Kadeteen taldean; Iosu, Joseba, Aintzane, Aitziber, Andoni, Alberto, Imanol eta Eneko. Soka tiran berriz, aranztarrek eta narbartearrek osatutako taldea aritu zen.

Eunate eta Andra Mari taldeen atzetik. Azkenik, sokatiran, kadete mailan fin aritu dira he-

rritarrek eta narbartearrak batera txapelketan zehar. Buruan ibili dira txapelketako ia ibilbide

guzian baina azkenean hamar punturekin txapeldunorde geratu dira aurtengo edizioan.

## Mendi Itzulia maiatz hondarrean

N.A.

Aintzineko alean aintzinatu bezala, Ekaitza elkarrekin eta Gazte Asanbladak antolatutako Arantzako bigarren mendi itzulia, maiatzaren 30ean izanen da. Estreineko alditik ibilbideak ez du aldaketarik. Ibilbidearen puntuak, hauek izanen dira: Herri guinea, Anibar, Unanu, Itsaszelaia, Izu, Oilargata, Ibintza, Ekaitza, Ilurdi, Mendaur (aukerakoa), Mairubartzeta, Zepuru eta herria. Guzira 30 kilometro inguru izanen ditu mendi itzuliak. Antolatzaileek fruta eta ura banatuko dute ibilbidearen sei puntu ezberdinetan. Ibilbidea akautu aintzinetik utzi nahi izanez gero, edozein kontrol puntuan egin daiteke. Honako hau antolatzaileei adieraziz, herrira itzultzeko bidea erakutsiko zaio mendizaleari. Hala ere, mendi itzuliri buruzko edozer xehetasun jasotzeko, bi telefono daude: 617 23 93 61 edo 647 75 91 40.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneetik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara  
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50  
amaia@artekari.com

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 948 133328 Faxa: 948 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA  
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

**ALBERGEEA JATETXEA**  
© 948 634179  
ARANTZA

**J. RAMOS**  
zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditud  
Phone: 948 631 342 BERRA - Phone: 948 637 172 LESAKA

## OITZ

# Nafarroako Gobernuak izendatutako udal kideek ez dute kargua onartu

Aitzinetik ez zitzaizela kontsultatu azpimarratu dute

### ttipi-ttapa

2003ko maiatzeko eta urriko udal eta konzejuetako hauteskundeetara kandidaturarik aurkeztu ez zenez, Nafarroako Gobernuak Oitzko udala kudeatuko duen batzordea izendatu zuen martxoaren 29an. Azkeneko urteetan alkate izan den Alberto San Miguel Mingegia, Jesus Mari Ariztegi Arozena, Juan Pedro Goñi Telletxea, Luis Anso Zelaieta eta Ander Oteiza Lizasoainek bete beharko dute lan hori.

Izendapen hau ez da bortz lagun hauen gustokoa izan eta ez dute onartu, batez ere, horren berri prentsa bidez izan dutelako eta beraiekin ez dutelako aitzinetik kontsultatu. Alberto



ARGAZKIA: D.NAVARRA

**Alberto San Miguel Herriko Etxearen ondoan. 1999tik bera da alkate eta Nafarroako Gobernuak kudeaketa batzordean ere sartu du.**

San Miguelek Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamentuarekin solastu du eta bilera egin nahi du, batzorde hauek noia aukeratzaren diren eta

orain zer egiten ahal duten jakiteko. Aitzinetik, bertze lau lagunekin bildu nahi du azken urteotako alkateak, ez baitakite zer pausu eman. Kasu berezirik ere ba-

da: Jose Luis Ansori Nafarroako Gobernuak berak idatzi bat igorri baitzion, Zubietan enpatronatua dagoenez batzordeko kide ezin zuela izan erranez.

## DONEZTEBE

# San Pedro bestak iragartzeko kartel lehiaketa

### ttipi-ttapa

Doneztebeko Udalak lehen aldiz San Pedro bestak iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa deitu du. Kartelak 50x60 cm.ko neurria izanen du eta bertan, *Doneztebeko Bestak, 2004ko ekainaren 26tik 30era* edo *Fiestas de Santesteban del 26 al 30 de junio de 2004* esaldia paratu beharko du, eta herriko armari ofiziala ezarri beharko da. Lehiaketaren oinarrietan ez da garbi azaltzen esaldia hizkuntza batean, bertzean edo bietan paratu behar den. Lanak Herriko Etxean aurkezteko epea apirilaren 23ko 13:00etan akituko da.

Bestak ekainaren 26tik 30era izanen dira aurtan, beraz asteburua hartzeko moduan antolatu dira. Bestak larunbatetik asteazkenera izanen dira eta egun handia, San Pedro eguna, asteartean izanen da.

**ie Iriarte-Echandi, s.l.**

- Aholkularitza
- Artekarietza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

**BELARRA**

OSTATUA  
JATETXEA

Amezitia karriko • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 03 06

**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA  
**MOSKITERAK, PERTSIANAK** MOTORIZATUAK,  
VENECIANAK... **PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK**

**BORTZIRI**  
**UNSION ANIAK**  
sukalderako altzariak  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891  
Faxe: 948 637 511

## DONEZTEBE

# Trafiko antolaketa berriari buruz ezadostasunak dituzte bi udal taldeek

PNVk lur azpiko aparkalekuak egitea proposatzen du

## ttipi-ttapa

Trafikoaren antolaketa berria gai nagusitzat zuen udal batzarra egin zen martxoaren 30ean Doneztebeko Herriko Etxean. Aitzinetik sinatu gabeko zenbait kartel agertu ziren herrian, batzar honen berri emanaz, baina hainbat herriar bertzetik ez ziren agertu udal batzarrera.

Bilera honek zenbait ondorio garbi utzi zituen: alde batetik, alkateak bultzatutako planak aitzinera egingen duela eta hasieratik pentsatuak ziren oinarri berdinak izan

nen ditu, hau da, herrigunean denbora mugarik gabe aparkatzeko debekua, Bordatxo ingurua aparkaleku gisara probestea eta aparkaleku honen eta Ameztia karrikaren artean oinezkoendako zubia egitea.

Hasiera batean proiektu hau Aste Saindurako martxan izanen zela pentsatzen baldin bazen ere, orain uda bukaera edo udazken hasiera arte esperatu behar dela uste du alkateak. Bordatxo inguruko aparkalekuak murgatuak eta markatuak



ARGAZKIA: AITOR

Oinezkoendako pasabideak altueran jartzea izan da trafikoaren antolaketa berriari ekiteko lehen pausua.

daude, baina zubiari dagokion guziaz falta da: proiektua egitea, baimenak, aurrekontuak eta epeak zehaztea. Aipatzekoa da, trafiko araudi berria ez dela martxan paratuko pausu guziaz eman arte, beraz, zubia egin arte ez da egingen.

PNVko zinegotziek ere herriko trafiko eta aparkatzeko arazoak moldatu behar direla uste dute, baina proposatzen dituzten soluzioak ezberdinak dira. Alfredo Zugarramurdiren us-

tez, herrigunean bizpahiru eremu hartu eta lur azpiko aparkalekuak egin beharko lirarteke. Aukera bat, baina ez bakararra, eremu horiek zuzenean erostea da. Guziaz gustora uzteko moduko bertz formula eta prozedura batzuk aztertzea ere ez dute baztertzen PNVko zinegotziek, lehendik ere egin baitira gisako akordioak. Bertze afera, Bordatxoko aparkalekuak uzteko akordioa da. PNVren erranetan akordio hau ez zen udal batza-

rrean berretsi, beraz ez du lege indarririk. Gainera, akordio horrek zabalik uzten du aparkalekuaren jabeak bere aldetik akordioa xehetzeko aukera. PNVren ustez, arriskutsua da horrelako inbertsio handi bat Udalarearen kontrolerik kanpo uztea eta jabeak iritziz aldatuko balu, deusezean geldituko litzateke.

Kontuak kontu, planak aitzinera segitzen du eta EAko botuekin gauzatuko da seguruenik.

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

**GAZTANDEGIA**  
**Lizun**  
Etxeko  
Ardi Gazta  
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

Haki Rodriguez  
**Lenkonea**  
1974  
Fork and spoon icons  
Foruen Plaza 2 • BERA  
tel.: 948 625 542  
faxa: 948 625 541

616 513 497  
**Pititi**  
ESKABAZIOAK  
C/Azandia  
31010 DONEZTEBE (NAFARROA)

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



## MALERREKA

# Teknikaria eta aldi baterako familia langileendako lan deialdia egin da

Malerrekako Mankomunitatean aurkeztu behar dira eskariak

### ttipi-ttapa

Malerrekako Zerbitzu Orokorreko Mankomunitateak 2004ko babesturiko giza lana eta gizarteratze arloko aktuazioak egiteaz arduratzeko aldi baterako teknikari bat hartu nahi du. Beti ere lana Nafarroako Gobernuko Gizarte Institutuko dirulaguntzaren menpe izanen da.

Aurkezten dena Gizarte Lanean diplomadun titulua izan behar du. Lanaldia %90eko izanen da eta kontratua horrela egingen da: %45 hezitzaile bezala eta bertze %45a gizarteratze langile bezala. Lansaria Nafarroako Gobernuko Administrazio hitzarmenaren arabera izanen da, hau da C mailako hezitzaile lanentzat eta B mailakoa gizarteratze langile lanentzat.

Euskara jakitea derrigorrezkoa da. EGA titulua dutenez izan ezik, gainerakoek euskara proba egin beharko dute. Gainera, proba teoriko-praktiko bat ere egingen da.

Interesatuak Malerrekako Mankomunitateko bulegoan aurkeztu beharko dute eskaera apirilaren 23ko 14:00ak baino lehen.

Bertze aldetik, Malerrekako Zerbitzu Orokorreko Mankomunitateak berak aldi baterako eta plantillaren langileak ordezkatzeko familia langileak behar di-



ARTXIBOKOA

Duela urte batzuk hasi zen Euskara Batzordea merkataritza euskalduntze-ko proiektuarekin.

## «Euskara merkataritzara» egitasmoa abiatuko du aurten ere Euskara Batzordeak

Aurten ere Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak «Euskara Merkataritzara» izenez ezagutzen den proiektua martxan paratuko du. Helburua harreman komertzialetan euskararen erabilera sustatzea da, eta eskualdeko merkataritza establezimenduetan ez ezik, ostalaritzan eta bertze zerbitzutan ere eragin nahi du. Interes handiko egitasmoa dela uste du Euskara Batzordeak, «establezimendu horietako jarduerak herritarren gizarte bizitzan eragin handia dutelako, bai he-

tu. Aurkezten denak eskolaratze ziurtagiria, autotua gidatzeko baimena eta ibilgailua eduki beharko du. Lanaldiak egun osoak edo ordu batzuetakoak izanen dira, zerbitzuaren behararen arabera. Lansaria

Nafarroako Gobernuko Administrazio hitzarmenaren arabera D mailakoa izanen da.

Euskara ahoz jakitea derrigorrezkoa izanen da eta EGA titulua ez dutenei ahozko proba egingen zaie. Gainera,

*riaren garapen sozioekonomikoaren ikuspegitik, baita euskararen sustapenaren ikuspegitik ere».*

Aurten, Mankomunitateak merkataritari bere establezimenduan euskara sustatzeko eskaintzen dizkion laguntzak modu zehatzean azaldu asmoz (itzulpen eta maketazio zerbitzua, euskara ikastaro espezifikoak, hizkuntza aholkularitza zerbitzua...) establezimendu guztiak banan-banan bisitatuko dira. Bisita hauek heldu den egunotan hasiko dira eta bi aste inguru iraunen dute.

proba teoriko-praktiko bat ere egingen da. Probak apirilaren 29an, goizeko 9etan hasiko dira. Interesatuak Mankomunitateko bulegoan aurkeztu beharko dute eskaera apirilaren 26ko 14:00ak baino lehen.

## KULTURA

# Haur kantari txapelketako finala egin zen Gaiarren

### ttipi-ttapa

Apirilaren 4an egin zen Iruñeko Gaiarren antzokian Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatutako Haur kantari txapelketaren finala.

Txikien kategorian, bakarlarrien artean Lizarrako Marta Moreno izan zen txapeladun, «Nafarroa» kantua-ekin. Bigarren postua Nahia Barriola leitzarrentzat izan zen «Oro irriño bat» kantua-ekin. Adierazkortasunaren saria ere leitzarrak jaso zuen. Bikoteka, Iruñeko Olaia Learnos eta Maider Esparza izan ziren garaile «Satorra» kantua-ekin. Taldeka, Leitzako Txikiak nagusitu zen «Ikastolako berri» kantua-ekin. Hirugarren Berako Jesusen Bihotza ikastetxeko Axuriak taldea izan zen, «Axuriak» kantua-ekin. Hauek entzuleen saria ere eraman zuten.

Gaztetxoaren kategorian, bakarlarrietan Nerea Zabaleta goizuetarra nagusitu zen «Bagare» kantua-ekin. Bikoteka Tuterako Miren Balmaseda eta Iruñe Salcedo izan ziren garaile «Guztiak oihaltzatetik» kantua-ekin eta taldeka Tuterako Argia nagusitu zen. «Zugan da» kantua-ekin. Bikotekaren egokitasunari dagokion saria Maddi Uranga Iesakarrak eta Amaia Espinosa beratarrak jaso zuten, «Urrun izan arren» kantua-ekin.

## GOIZUETA

# Nerea Zabaleta irabazle aurten ere Haur Kantari txapelketan

Gaztetxoen mailako bakarlarien artean garaile suertatu zen Gaiarreko finalean

## Esteban AROTZENA

Apirilaren 5ean Iruñeko Gaiarre antzokian jokaturako Nafarroako Haur Kantari txapelketako gaztetxoen mailako bakarlarien lehenengo saria Nerea Zabaleta eskuratu zuen. «Bagara» kanta ezaguna erabili zuen horretarako, eta Aitziber bere irakasleak lagundu zion zeharkako txirularekin.

Iazko txapelketan txikien mailako saria irabazi zuen Nereak, beraz, aurten lehenengo partehartzea zuen gaztetxoen artean, eta halere, irabazle suertatu da. Hainbat adituk dienez, aingeruek bezala kantatzen du Nereak eta ondorengo urteetan



ARTXIBOKOA

**Nerea Zabaleta irabazle suertatu da aurten ere Nafarroako Haur Kantari txapelketan.**

sari gehiago ekarriko ditu herrira, seguru aski.

## Nabarralderen aurkezpena

Nabarralde erakundeak bere aurkezpena

egin berria du herrian 30 lagunren aurrean udaletxean burututako ekitaldian. Nabarralderen sustatzaile izan nahi dutenentzat udaletxean daude paperak eta aldeztu aurretik informazio gehiago jaso nahi duenak jo lezake 902 197051 telefonora edota [www.nabarralde.com](http://www.nabarralde.com) web-orrira.

## Txakolindegira ateraldia

Zarauzko «Primo»-ren txakolindegian bazkalduz irteera antolatuta du Umore Ona elkarteak maiatzaren 1erako. Urrutinean edo Amaierenean izena emateko epea asteburu honetan bukatzen da.



## «Hau urtero egin behar da»

Ehundaka lagun giro ederrean Txinoko festen lehen edizioan

Eguerdiko umeen jokoak eta altxaferoak, erraldoiak, 200 lagunetik goitiko bazkariak (txartelen salmenta moztu egin zen lekuak gehiagorako ematen ez zuelako) eta ilunabarreko triki-bertso poteoak giro kuttun eta goxoa eman zien Txinoko festen lehenengo edizioari. Kuttuntasun honek gaueko parranda gogorrari ireki zion

bidea eta rock kontzertuaren ondoren, auzoko tabernek gainezka egin zuten igande goiza ederki luzatu zen arte. Ilunabarrean auzoko bi amonak esandakoarekin ados egonen ziren seguru aski martxoaren 27an Txinoan parranda egin zuten guztiek: «*Honetan gelditzerik ez dago. Hau hemendik aurrera urtero egin behar da*».

## ARESO

# Mutilen eskola zena beste hogeita bost urterako errentan eman zaio Pake-Toki Elkarteari

Hilean 200 euro inguruko errenta ordainduko du

## Juana Mari SAIZAR

Badira dagoeneko hogeita bost urte udalak herriko mutilen eskola zena alokatu ziola Pake-Toki elkarteari, 4.500 pezetako urteko kanonarekin. Orain, beste hogeita bost urterako kontratua berri-  
tuo dio hilabetean 200 eu-

ro edo 33.000 pezeta inguruko errentarekin.

## Mendiko pista

Mendiko pista batzuk hobetu behar dituzte, batez ere egur loteak ateratzeko moduan uzteko: Zakulu, Belaku eta Merkukoak eta hauen kosta 8.600 eurokoa

izanen da. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, berriz, 4.900 eurokoa izanen da.

## Zizurko pilota txapelketa

Unai Onsalo Zizur Nagusiko buruz buruko pilota txapelketan afizionatu mailan txapel-



ARTXIBOKOA

**Pake-Toki elkarteko azken mus txapeldunak.**

dun gelditu zen. Mikel Olazabal ere bere urte-

koen artean txapeldun izan zen.

## LEITZA



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Joxe Migel Elozegi solasaldian.



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Honez gero aspal-di samarrekoa izan arren, jende askok parte hartu zuen aurtengo herri kro-sean. 84 ume eta gazte. 20 emakume senior eta beteranoak. 67 gizonezko senior eta beteranoak. Guztira 171 korrikalari. Argazkian irabazleetako batzuk.

# Hitzaldia eta argazki erakusketa Maxurrenearen alde

Martxoko ekimenen barnean eskaini zuen Joxe Migel Elosegik

Mikel ILLARREGI

## Bai Euskarari Akordioa

Euskararen aldeko konpromiso prozesu ho-

Maxurrenea herrin-tzat ekimenen artean martxoko ekimenean, Joxe Migel Elosegik argazki erakustarekin batera hitzaldi bat eman zuen Leitzako historia azalduz. Bertan, aipamen ezberdinen artean mugarriak eta mendi borden istorioa azaldu zituen jende mordoxkaren aurrean.

## Mendi irteera

Apirilaren 25ean, hile honetako mendi irteera antolatu da. Oraingo honetan Aiako Harrietara izanen da. Ibi-laldi hau eroso xamarra da. Hemengo honetan, hiru gain ezberdin ikus daitezke; Irumugarrieta (806), Txurumuru (821) eta Erroilbide (837). Oiarzun, Irun eta Lesakako muge artean kokatzen dira. Kostaldeko mendi honek izugarritzako paisaia ikusteko aukera eskaintzen digu.



## Laaziza Kheya

Hamasei urte daramatza Leitza eta orain oso pozik dago. "Etorri nintzenean ez ninduten ongi hartu nahi izan, marokiarrak nintzelako. Hala ere, denboraren poderioz, ezagutu naute eta beste mundu eta kultura batetik natorrela oharu direnean beste lagun bat bezala hartu naute. Nik Leitzako euskalduntzat hartzen dut neure burua, nahiz eta



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Aurreko mendi irteeran Beriinera (San Donato) izan zen eta aspaldiko partez 25 lagun elkartu ziren. Uste baino luzeago gertatu zen baina hala ere, merezi zuela ondorioztatu zuten joandako guztiek.

netan, euskaltzaleek, udalak, euskara zerbi-

tzuak eta Kontseiluak bultzatuta, herriko gi-

zarte eragileak izanen ditu protagonista. Honetarako egin zaien gonbiteari erantzunez, urratsak emateko konpromisoa zehaztuko dituzte eta BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA eskuratuko dute. Lehengo bileran Nagusia apirilaren 23an egingen dute eta honen guztiaren azalpenak eskainiko dira. Hurrengo bi hilabeteetan proiektu honen koordinazio lanak Batzordearen izenean, Aitziber Bergarak egingen du.

## MARRAKECH-ETIK LEITZARA (5)

oraindik orain, ulertu arren, euskaraz mintzatzeko arazoak izan.

Marrakech hirian sortu eta bizi izan zen hona etorri arte. Oporretara Iruera iritsi zen eta orduan Bixente Zabalo ezagutu zuen Leitza hurbildu aurretik. Hona etorri aurretik senda-belar lantegi batean egin zuen lan azkeneko. Urtero bisita egin asmoz hogeitatu egunetako jotzen da familiagana. Ama ere etorri izan da hona. Bi alaba dituzte eta hauek ere joan izan dira Marokora eta oso aldaketa handiak somatu dituzte bi bizimodu hauen artean. Laazizak ere, hala somatu zuen herrialde hauetara etortzerakoan; jendea, jendearen izaera,

janaria, paisaia,..."dena zen ezberdina eta berria. Marrakech oso polita da, baina tristea hemengoarekin konparatuz gero" esaten du.

Orain alabek arabea ulertu eta zerbait hitz egiten dute, baina etxean erabat euskaraz mintzatzeko dira. Senar-emazteek gogoratzen dute "hasieran, lehen urtean, elkarri ezin ulertuz, keinuka adierazten genuen dena".

"Nik besteak, beraien ohituretan eta sinismenak errespetatzen ditudan moduan, nirea errespetatzea eskatzen dut" adierazten du, momentu gogorren batedo beste gogoratuz. Hala ere, pixkana, ohituraz ere, bera aldatuz joan da. Ala jainkoarengan

du sinismena baina ez du ohitura berezirik mantentzen. "Erlitio gaian, alabei aukerari jarri diegu, deus ere inposatu gabe. Bestetik, goitik behera mantentzen dudana txerriekin jatea da, ez dut inoiz probatu".

Madrilgo atentatu eta ondoren sortutako tentsio eta giroari buruz galdetuz, "izugarritzako nerbioak jasan ditut, medikutara joan behar izan dut. Ez dut bat ere ongi ikusten egindakoa" adierazten du tristuraz eta onartuz hemen ez bezala, beste tokian beraien gisako jendearen aurkako sentimentua nagusitzen ari dela. "Asko maite ditut senarra, alabak eta lagundu didaten Leitzako jendea" dio azkenik.

## BAZTAN

# Oilar Jokoaren kontrako denuntzia ez du onartu Ingurumen Departamentuak

Konpetentziarik ez duela eta oilarra ez dela konpainiako animalia dio erabakia arrazoitzeko

## ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Ingurumena, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak ez du onartu Animalien Babes eta Ongizaterako Elkarrekin Oilar Jokoaren kontra aurkeztutako denuntzia. Zehazki, denuntzia berez izaera juridikorik ez duen Elizondoko Udalaren kontra jarria zegoen eta animalia biziak saritzat ematen direla eta oilarrei estresa eragiten zaiela aipatzen zen.

Ingurumen Departamentuaren erantzunaren arabera, animalien babeserako foru legeak dioenez, isunak jartzeko ahalmena legez kanpoko jarduera gertatzen den udalarena da, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Oilar Jokoaren kasu zehatzean, Ingurumen Departamentuak dio ez dela ani-

maliek tratu txarrak edo estresa jasaten dutenaren datu teknikorik, beraz ezin da debekurik ezarri. Denuntziaren arabera, lege-haustea oilarra irabazleei ematean egoten ahal da, baina horrelakorik ez da legean ageri. Izan ere, oilarra ez da konpainiako animalia, errekurtsioa lortzeko erabiltzen dena baizik. Beraz, ezin da lege-haustetzat hartua ez den gauza bategatik inor sanzionatu. Beraz, Ingurumen Departamentuak gait honen inguruan konpetentziarik ez izateaz gain, denuntzian agertzen direnak ezin dira lege-haustetzat jo. Baztango Udalak hartu du Ingurumen Departamentuaren idatzia eta orai herrietako ikastetxe eta alkateei igorriko die, Elizondon ez ezik bertze hainbat herritan egiten baita Oilar Jokoa.

## Oronozko tunelaren argia hobetzea eskatu du Udalak

Baztango Udalak Oronozko tunel berriaren argia hobetzea eskatu dio Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuari, Florentino Goñi zinegotziaren eskariarekin bat eginez. Bere ustez, «*Elizondo aldera tunelaren irteeran gaur egun jarria dagoen argia ez da aski eta harrobira ailegatu baino lehen akitzen da. Gaezikuspena murriz gelditzen da*». Horregatik, Askapeko harrobiraino argia paratzea eskatu du Udalak. Bertze aldetik, Oronoz-Mugairiko ur-depositora eta Kalisoro mendira doan bide ondoko hesira harriak erori direla eta horiek ere kentzeko eskatu zaio Herrilan Departamentuari.



2004ko Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartela duzue hau. Zigako Garagarreko Juan Ignacio Mendiburu gaztea da «Zapi ñabarra» izeneko lanaren egilea. Gazte honek Arte Ederrak ikasten ditu Leioan, diseinu grafikoko espezialitatean eta Margarita Aizpuru pintorearen semea da. Arras kontent dago lehiaketa irabazita, izan ere «*beti amets egin dut lehiaketa hau irabaztearekin, baztandar batentzat balleko bestarik haundiena iragartzea poz ikaragarria baita*». Lehiaketara maila arras oneko 17 kartel aurkeztu ziren eta beraiekin erakusketa egiten da uztaila aldera. Lehiaketaren epaimahaia Itziar Mena eta Ines Barberena diseinugileek, Ana Larruy eta Fernan Gorostidi artista plastikoek eta Leire Erize eta Jexux Baylon Baztandarren Biltzarren kideek osatu zuten.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostatua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte  
ELIZONDO  
© 948 581807 • 948 581853

**ORDOKI LIKOREAK**  
ERRETEGIA

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
ARRIZKUN

Parrilan egindako  
haragi eta  
arrainak

**ONASKA**  
ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza  
Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE  
© 948 45 20 88

**BAZTAN**

**FLASH**

## Udaltzainek ez dute lanik egingen larunbat arratsetan

Elbarri eta guttitu fisikoekin lan-poltsa osatuko da

**ttipi-ttapa**

Orai arte udaltzaingoak zerbitzua eskaini du larunbat arratsetan. Zerbitzu hori eskaintza garesti ateratzen zaio Udalari, ordu aunitz baitira eta gaueko orduak bezala ordaintzen direlako. Afera sakonki aztertu eta baloratu ondotik, proba gisara eta zehaztu gabeko epe batean larunbat arratsetako zerbitzua kentzea erabaki du Udalak, Barne Antolaketa, Ekonomia, Ogasun eta Kontueta-ko zinegotziaren proposamena ikusi ondotik.

Bertze aldetik, Virginia Aleman alkateak aipatu zuenez, urteko denboraldi edo egun zehatzetan laguntza edo zaintza eskainiko duten pertsonak kontratatze-ko egoerak gertatzen dira. Ekitaldi edo programa zehatz horiek betetzeko, guttitu fisikoekin edo elbarriak diren pertsonekin lan-poltsa osatzea eskatu dio Udalak Bitarte Zerbitzuari.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Apirilaren 6an ezarri zuten Soalarko iruinari edo menhirra **Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikoaren** lorategian. Apirilaren 14an, berriz, aurkezpen ofiziala egin zen.

### Elizondoko Txokoto auzoan etxebizitzien ordez aparkalekua egitea proposatu du UPNk

Elizondoko Txokoto auzoan aparkalekua egitea proposatu du UPNko udal taldeak. Gaur egun, kamioiei aparkaleku gisara erabiltzen duten lur eremuan EAko udal taldeak etxebizitzak egiteko asmoa du, eremu hori eraiki-

garria izendatuz. Guardia zibila- ren kuarteletik bidearen bertze aldean dagoen lur eremua Espainiako Defentsa Ministerioarena zen eta Baztango Udalak lurra desjabetzeko tramiteak hasi zituen duela lau urte baino

gehiago. Begoña Sanzberro UPNko zinegotziak azpimarratu duenez, «*hasierako helburua aparkalekuak eta lorategia egitea zen*». Duela lau urte, 80 bizilagunek sinatutako eskaria aurkeztu zen Udalean aparkalekua eskatzu. UPNren iritzi, «*udalak orai iritzi hori ez du kontuan hartu eta ez zaie informatu*».

*Eskisaroi jatetxea*  
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
**ELIZONDO**

**BURKAITZEA**  
ostatu erretegia  
Zugarramurdiko bidea, 3 km.  
© 948 599280 • URDAZUBI

**OSTATU - JATETXEA**  
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**asnap me**  
• GIZARTE ETA LAN ARLOA  
• KONTABLE-FISKALA  
• JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
  - Garraioak
  - Elektrizitatea
  - Eraikuntza
  - Igehseroak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan asesoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aitortpenak

**DONOSTIA**  
Itza Semerik, 4. Solairu  
Telef: 948 411822 Telefax: 948 411418  
web: herriherri@asnapme.com

**ELIZONDO**  
Santago, 51. Solairu  
Telef: 948 580 506  
web: elizondo@asnapme.com

**LEZORRA**  
Santago, 1. Solairu  
Telef: 948 262208 Telefax: 948 262194  
web: lezorra@asnapme.com

SENPERE

# Ezkerra Senpere lehen indarra bilakatu da Akitaniako bozetan

Solasak badaude Orma lantegia berpizteko

**Franck DOLOSOR**

Herriko soziologia aldatzen ari ote da? Galdera hau egin daitaie azken bozetako emaitzak ikusi ondoren ezkerra nagusitu baitzen Akitaniako eskualdeko bozen lehen eta bigarren itzulian. Martxoaren 28an, sozialista eta ferdeen taldeak 943 boz eskuratu zituzten, martxoko 21eko lehen itzulian baino 255 gehiago, erran nahi baita komunisten eta ezker muturraren bozak baino gehiago. Uhain arrosa Senperetik ere pastu da beraz ezkerra lehen indarra izan baita. Ezkerra alde guzietan goititu da Uztaritzeko kantonamenduan, Lapurdin, Iparraldean eta Akitania guzian. UMP-UDF eskuinzentroak 14 boz gehia-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

**Ortzanaren ondotik, bigarren etxegune bat egingen da aintziran udazkenean.**

go baizik ez zituen irabazi bi itzulien artean. 888 senpertarren konfiantza izan zuen Xavier Darcos-ek. Eskuindarrak eta zentristak berex abiatu ziren lehen itzulian eta hori ez dute

begi onez ikusi aintzek. Frente Nazionalak 180 herritarren bozak ukan ditu, lehen itzulian baino 14 gehiago. Eskuinak edo eskuin-muturrak ehiztarien artean edo abstentzioan bildu

dituzte boz berriak. Lerro hauekin gan den aldizkariko artikulua xuxentzen da, bozen bigarren itzulia baino lehenago inprimategirat ereman baiginuen azken artikulua.

## Lantegi berriak ezarriko dira Lizardia lan zelaian

**F.D.**

Lizardia lan zelaia haunditzeko xedea du herriko etxeak. Lantegi berriak plantatuko dira alde hortan. Bertalde, Orma lantegia berriz irekitzeko solasak eta hartu emanak egon dira. Dena den, mementuz ez da deus finkaturik hirurogoi bat langile kanpo eman ziztuen lantegi hori berpizteko. Amotzen eta karrikan bezala, etxe aintz itxatzen ari da herri guzian. Ortzana auzoa laster bururatu izanen da eta herriko etxeak bigarren etxegune bat prestatuko du aintziran. Hamar lur salduko dituzte etxeak egiteko. Proiektu hori udazkenean hasiko da.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angelutak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leitxoak	Zokaloak
Ateak	Hilariak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandada' Mazoia  
Zahar antzekoa Tsapeatua

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK

## Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

**Ahatekietan adituak eta arituak**

Martiko S.A. Pol. Zelaia, s/n. 31780 Bera, Navarra  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

## AZKAIN

# Rugbi eskolen norgehiagoka jokatu da maiatzaren 1ean

1.500 haur etorriko dira Ipar Euskal Herria eta Landesetatik

### Angela eta Xamo

Heldu den maiatzaren 1an, gure herriak 25-garren rugbi eskoletako zoin gehiagoka errezibituko du. 1500 haur etorriko dira ipar Euskal Herriko leku guzietatik, baita Landesetatik ere. Orotara 26 taldek parte hartuko dute txapelketa honetan. Rugbilariak bortz maila desberdinetan zatituko dira (mikroitoak 7urte arte, minixitoak 9 urte arte, xitoak 11 urte arte, benjamin 13 urte arte, minix 15 urte arte).

Egunean zehar, gutti gora behera 250 partida jokatuak izanen dira. Kiroletako zelaia ez-paita aski handia, Xantakon ere arituko dira haurrak.

Herriko rugbi taldea aspalditik ari da txapelketa hori antolatzen, jakinez haur zenbakiari gehitu behar dela berderen 3000 so egile, burasoak, rugbizaleak, lagunak...

Duela 25 urte, Kanbon antolatua izan zen lehen edizioan 350 haur hurbildu ziren. Geroztik ikusten ahal dugu txapelketa horrek gero ta axola gehiago hartu duela. Manifestaldi hori onerat eremateko, antolatzaileek 120 bihotzon xekatzen dituzte.

### Argazki txapelketa

Herriko turismo bulegoak argazki txapelketa bat antolatzen du, heldu den ekainaren



20an, bi garren zine eta argazki tresnen egunakotz. Interesatuak direnentzat, argazkiak herriko etxerat edo bulegoratz igorri beharko dira maiatzaren 29a aintzin. Hautatuak diren gaiak: arkitektura, folklorea, paisaiak, pertsonaiak.

### Gemukuren kontzertua

Apirilaren 3 an Gemuku gazte elkarteak rock-metal kontzertu bat antolatu du, Kirol ostatuan. Gazte andana bat etorri da inguruko talde batzu entzuterat. Kulkiren bitartez kirol ostatu erabiltzea aukera izan arren, elkarteak Gaztetxe baten beharra argitaratu nahi du, ez duelako oraindik lokalirik atxeman.



Argazkia: Xamo

### Aratz-en bazkaria

Orduan! elkarteak Aratzen bosgarren bazkaria Termin Mugan antolatu du apirilaren 4 ean. 80 pertsona, heldu eta gazte, hurbildu dira zikiro baten inguruan egun goxo bat pasaterat. Orroitarazi behar da Aratz 18 urterendako jujatua izan dela gan den abenduan. Geroztik bigarren gradutik lehenera pasatu dute. Horrek erran nahi du isolamenduan izanen dela, denbora guttiago pasatuko duela kanpoan, baita ere tailerretan bainan denbora gehiago bere gelan.



ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ  
Arkitektoa

JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ  
Arkitekto Teknikoa

Santiago, 55 - 2. B • 31700 ELIZONDO NAFARROA  
Tel. 948 581 931 - 629 50 31 25  
Fax. 948 581 854  
e-Posta: arantxaci@terra.es

SCC-02-0199

**Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

## SARA

# Sara-Ataun elkar ezagutzen proiektua egiten ari dira

Bi herriek Joxe Migel Barandiaran zena omendu nahi dute

## Saski eta Joana

Apirilaren 2an, larunbatarekin, Ataun herriko hogoi bat lagun Sarara etorri dira «Sara-Ataun elkar ezagutzen» proiektuaren inguruan, Joxe Miguel Barandiaran jaunaren omenez. Hango eta Sarako elkarrekin kide zonbeit hurbildu dira bai eta bi herriko etxeko kontseilariak. Bilkura batekin hasi da eguna, herriko etxean goizeko 10:30etan. Bi herrien arteko anaitasuna sortzea eta bi egunen antolatzea ziren helburuak.

Ataundarrak Sarara etorriko lirateke urrian, «Uso besta» karietara eta saratarak gomituak izanen lirateke Kulturdiarako, abenduan.

Jakin behar da ere bi herriko eskolak jadanik harremanetan sartuak direla eta beraz Sarako hiru eskoletako haurrak apirilaren 30ean Atauneko eskolekin, han pasatuko dutela eguna. Ondotik, denak joan dira Pullman jatetxera



ARTXIBOKOA

Finalerako txartela aste honetan jokatu dute Sarako Basurdeek Landesetan, Hossegoren kontra.

bazkaltzera, harreman gehiagoren sortzeko eta eguna bukatzeko elgarrekin Sarako lezeak bisitatu dituzte.

Egun goxo bat izan da giro on batekin, eta iduriz proiektu hori bide onean doa.

## Idazleen Biltzarra

Sarako Idazleen Biltzarra Jean-Louis Da-

vant eta Philippe Oihanburu idazleak omendu ditu, euskal kulturaren alde egindako lan oparogatik. Aitzineko urteetan baino bisitari gehiago izan zen kiroldegian. Mahai gehienak liburuz beteak ziren, eta giblean idazle franko ikus zitekeen.

## Errugbia

Apirilaren 3an, igan-

dearekin, Sarako ekipak erdi-finaleko lehen fasea jokatu du, Saran, Hossegoren kontra 26 eta 19 irabaziz.

Beraz, bigarren faseko Hossegoren aritzeoak ziren apirilaren 18an, 7 puntuko abantzuarekin. Agian saratarak joan izanen dira Landesetara haien sustengatzera eta falta den indarra ematera.

## FLASH

## Pilotan saratar bat txapeldun!

Apirilaren 3an Lekomen Xabier Juanena pilotari saratarak junior mailan Euskal Herriko txapelketa irabazi du eskuhuskan, Zuraideko Atzarniko Dominique Daguerre gaidituz (40-39). Partida pollita eta tinkoa izan da. Zorionak Xabier!

## Pleka trinketeko pala txapelketa finalak

Pala txapelketako finalak apirilaren 24an iraganen dira. Ondotik bazkaria izanen da. Nahi dutenek izena ematen ahal dute lehenbailehen trinketera deituz, 05 59542206 zenbakira. Xoko txapelketarako ere izenak ematen ahal dira, lau mailatan zenbaki berdinerara deituz.

## Presoen aldeko festibala iragan da

Apirilaren 17an eta 18an, Saran iragan da Gaztetxeen arteko kolektiboaren festibala, «Kantuz Euskal Presoak etxerat!» lemapean.



MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL 0559542519

**ZOANSA**

SEAT AUDI VW

SALMENTA  
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA  
(Sarrera Beratik)

**BAZTAN**

**ALTZARIAK**  
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



## URDAZUBI-ZUGARRAMURDI



UTZITAKO ARGAZKIA

Ramona Varelak gan den martxoak 7an bete zituen ehun urte. Andres Dihasarri alkateak, Herriko Etxearen izenean, herriko harmarria oparitu dio, bere bizian herritarrei eskaini dien laguntzarengatik, bai jatetxe edo etxe partikularretan familiako bestak egiten zituztelarik, baita zerbitzari edo sukaldari gisa. Ramona Zugarramurdiko Iparrean sortu zen. Ttikitan bere guraso eta haurrideekin etorri zen Urdazubirat, Landibarko Beinatenerat. Handik erosi zuten Sutegia etxe zaharra. Hain zaharra izanik, hura urratu eta berria egin zuten. Han bizitu da azken urte hauetan. Gaur egun bere koinata Korneli Santesteban eta beren zaintzailearekin bizi da Ramona Varela Dantxarineako Xalamainean (komertzialki Benta Manolo).

## Zuberoako Idauze-Mendi eta Bizkaiako Mendexa herriekin senidetu da Urdazubi

### Koro eta Margari

Apirilaren 3ko eguerdian Urdazubiko Herriko Etxean hiru herriren arteko topaketa antolatu zen. Herri horiek Mendexa (Bizkaia), Idauze-Mendi (Zuberoa) eta Urdazubi dira. Bileran, hiru herrien artean loturak mantentzeko egiten ahal ziren ekintzei buruz aritu ziren. Adostu zirenak hauek izan ziren: Herri bakoitzeko haurrak bertze bi herriak ezagutzeko asmoarekin bisitaldi gidatuak antolatu; gauza bera ere adinako jendeekin; eta az-

kenik, hiru hauetarik baten merkataritza, artisautea, turismo edo halakorekin ikusteko daukan zerbait antolatzen badu, bertze biek ere horretan parte hartzeko gonbidapena jasotzea.

Idauze-Mendik maiztzean eginen duen Mas-kadarat gonbidatu ditu Mendexa eta Urdazubi.

### Lapiztegia

Lapiztegia karrikako saneamendu lanak hasitakoak dira. Lan hauek "Mariezkurrena" enpresari emanak diozka

Udalak 120.000 eurotan eta bi hilabetez egiteko epea dauka. Karrika honetako ur zikinak Sagardia aintzineko aldetik doaien karrikatik bideratuko dira, tramo guzti hori irekiz tuboak sartzeko. Behin Iruine-rat ailegatuz saneamenduko sarerat lotuko da eta hortik zuzen behe-tiko karrikan dagoen depuradorarat igorriko dira. Beraz, karrika hoietan bizi zaretenok lan hauek egiten diren bitartean pazientzia pittat beharko duzuela jakin ezazue.

## ERREPIDEAK

### Endarlatsa-Behobia tarteari buruzko akordioa adostu dute Nafarroak eta Gipuzkoak

Laister sinatuko da hitzarmena

#### ttipi-ttapa

N-121-A errepideko Endarlatsa-Behobia bide zatiari buruzko akordioa adostu dute Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak, apirilaren 7an Iruñean egin zen prentsaurrekoan jakinarazi zenez. Nafarroako Jauregian izan ziren Francisco Iribarren, Nafarroako Gobernuko E-konomia eta Ogasun departamenduko kontseilaria, Alvaro Miranda Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilaria eta Javier Zuriarrain, Bide Azpiegituretako Gipuzkoako diputatua. Akordio honen arabera, Gipuzkoak hartuko du bere gain moldaketa lanen gastu osoa eta trukean, bidearen jabe goa utziko dio Nafarroako Gobernuak. Hitzarmena datozen asteetan sinatuko da eta bertze bortz

urte baino lehenago errepide berria irekiko dela uste dute bi administrazioek.

Errepide berriak hiru karril izanen ditu %73an eta Irunetik hurbilen dauden 700 metrotan lau karril izanen dira. Proiektuaren barnean izanen da Endarlatsa inguruan zubi berri bat egitea. Nafarroako Gobernuak egingen ari da proiektu hau eta akatu duenean Gipuzkoako Diputazioaren esku utziko du. Hau kenduta, bertze lan guzrien ardura Gipuzkoarena izanen da.

Akordioaren arabera, Nafarroako Gobernuak datozen urteetan ondasunen jabetza mantenduko du, baina hitzarmena sinatzerakoan, erabilera doan utziko dio Gipuzkoari. Ondotik, epe ertain batean, bide zaharra eta moldatua Gipuzkoaren jabe goa pasatuko da.

**bentamiguel**  
denda, jatetxea eta ospatua

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

Talokua  
Ukarrak  
Jantziak  
Unlategia

Ibardingo Lepoa • © 948 631209

## HEZKUNTZA

# Haur Hezkuntzako lehen ikasturtean hasteko 221 haurrek eman dute izena

Aurrematrikulazio datuen arabera, horietatik 208k D ereduari ikasiko dute

## ttipi-ttapa

Heldu den ikasturtean, 2004-2005 ikasturtean eskualdeko 221 haurrek hasiko dituzte Haur Hezkuntzako ikasketak, aurrematrikulazio datuen arabera. Kopuru horretatik 186 ikastetxe publikoetan eman dute izena. Eskualdeko ikastetxe publikoetako kasik ikasle guzietan D ereduari eman dute izena, guzietan Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean A ereduari izena eman duen batek izan ezik.

Almandozen bi ikasle berri izanen dira, Arantzán 4, Arizkun 8, Azpilkueta 1, Berako Rikardo baroja ikastetxean 14, Doneztebeko San Migel ikastetxean 30, Elizondoko San Francisco Javier ikas-



ARTXIBOKOA

**Ikastetxe publikoetan 186 haurrek eman dute izena eta 35ek kontzertatuetan.**

tetxean 28, arestian aipatu bezala 27 D ereduari eta bakarrik A ereduari, Elizondoko Baztan udal ikastolan 10, Erratzun 2, Etxalarren 4, Gartzainen 2, Igan-


tzin 5, Iruritan 6, Ituren 9, Legasan 2, Leitzaoko Erleta ikastetxean 21, Lesakako Irain ikastetxean 14, Narbarten 3, Oronozen 4, Sunbillan 5 eta Zigan baka-

rra. Amaiur, Areso, Erantsun eta Saldiasen ez da haur bakarrik ere apuntatu lehendabiziko ikasturte honetarako.

Ikastetxe kontzertatuak dagokienez, 35 ikas-

lek eman dute izena Haur Hezkuntzako lehen kurtsuan Berako eta Lesakako ikastetxeetan eta Berako Jesusen Bihotza ikastetxean. Berako Labiaga ikastolan 11 ikasle berri izanen dituzte, Lesakako Tantiurairu ikastolan 12 eta Berako Jesusen Bihotza ikastetxean 12, 2 A ereduari eta 10 B ereduari.

Beraz, euskara ereduari dagokienez, 221 haurretatik 208 D ereduari hasiko dira, euskara hutsean, hamar B ereduari, euskaraz eta gaztelaraz eta hiru A ereduari izena eman dute, gaztelara hutsean eta euskara ikasgai bezala hartuta, baina nekez osatzen ahalako da ikasgela ikasle kopuru horrekin.





## EZKONTZAK

**Michael Joseph McGrath** eta **Maria Pilar Buldain Mikeo**, Ingalaterra eta Leizakoa, martxoaren 24an.  
**Ignacio Toni Etxebarria** eta **Maria Victoria Errotaberea Pacha**, Iruña eta Elizondokoa, apirilaren 3an.  
**Iban Txoperena Iturbide** eta **Ainhoa Saldias Iribarren**, Igantzi eta Urrozkoa, martxoaren 28an.



## SORTZEAK

**Naroa Elizaintzin Alzuarde**, Iruritakoa, otsailaren 24an.  
**Pilar Antimasvere Jimenez**, Oieregikoa, martxoaren 9an.  
**Ainhoa Altzugarai Garro**, Berakoa, martxoaren 24an.  
**Koumy Etxegarai Urrutia**, Berakoa, martxoaren 28an.  
**Martin Roqué Aguilera**, Elizondokoa, martxoaren 26an.  
**Angel Telletxea Karrikiri**, Elizondokoa, martxoaren 29an.  
**Maika Boucon**, Sarakoa, martxoaren 16an.  
**Maialen Etxabe Olagarai**, Zugarramurdikoa, martxoaren 26ean



## HERIOTZAK

**Francisca Zenoz Barberena**, Zigakoa, martxoaren 25ean, 89 urte.  
**Jose M<sup>a</sup> Telletxea Fagoaga**, Berakoa, martxoaren 26an, 62 urte.  
**Eduardo Torre Otegi**, Berakoa, martxoaren 27an, 66 urte.  
**Bernardo Irungarai Juanikotena**, Erratzukoa, martxoaren 27an, 75 urte.  
**Julian Ordoki Etxebarria**, Lesakakoa, martxoaren 28an, 82 urte.  
**Emilia Bereau Irazabal**, Iturengoa, martxoaren 27an, 83 urte.  
**M<sup>a</sup> Luisa Txoperena Agara**, Lesakakoa, apirilaren 2an, 86 urte.  
**Margarita Pikabea Irazoki**, Etxalarkoa, apirilaren 5ean, 87 urte.  
**Dolores Mitxelena Loiarte**, Goizuetakoa, apirilaren 12an, 92 urte.



### Dolores MITXELENA LOIARTE

2004ko apirilaren 12an hil zen Goizuetan, 92 urte zituela.

*Laurogeita hamabi udaberritan eman digun umorea laurogeita hamabi udaberritan loratu den landarea joan egin da gure amona, emakume dotorea baina bihotzari leku bat dugu beti zuretzat gordea.*

**Olaizola-Arozena familia.**



### Joxe Manuel SALDIAS KARRIKABURU

2004ko otsailaren 17an hil zen, 47 urte zituela.

*Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guzieren, eta bereziki Arraiozko herriari Mila esker.*

**Bere familia.**



### Joxe Manuel SALDIAS KARRIKABURU

2004ko otsailaren 17an hil zen, 47 urte zituela.

*Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.*

**Bere senideak, Antton eta M<sup>a</sup> Jose eta bere ilobak Andoni, Leire eta Aimar.**

## DATUAK...

- Juan Manuel «Xuper» Ordoki 32 urteko beratarrak auto-trial probetan parte hartzen du azken hiru urteotan eta gisa honetako probak antolatzen dituen Etxarri-Aranazko Basati 4x4 taldeko kidea da. Berara proba bat ekartzea gustatuko litzaioke.
- Martxoaren azken aste hondarrean estatu mailako proba antolatu zuten Arbizun.
- Udaberrian hasi eta urria bitarte luzatuko da denboraldia. Azkeneko probetan parte hartzeko itxaropenarekin autoa prestatzen ari da «Xuper».



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

## Xuper ORDOKI *Auto-trial gidari eta antolatzailea*

# «Proben helburua ez da autoa xehetzea, autoaren muga zein den jakitea baizik»

### Aitor AROTZENA

Martxoaren 27 eta 28an, Basati 4x4 taldeak bigarren kontzentrazio nazionala antolatu zuen Arbizun. Jendetza ugari bildu zen lur orotariko ibilgailuek betetzen zituzten froga harrigarriak ikustera. Auto hauek proba bereziak gainditu behar dituzte: zubiak gurutzatzea, desnibelak, zuloak, konoak, orientazioa...

Duela urte mordoak hasi ziren honelako frogak egiten, gehien bat herriko bestetan. Berako Juan Manuel «Xuper» Ordoki da Basati taldeko kideetako bat. «Joan den urtean hasi ginen proba hau antolatzen, todoterreno hauen mugen bila joaten gara. Ez preziki kotxea xehetzeri joan, baina probatzen ditugu desnibelak, maldak, zuloak, mendian autoa nola portatzen den ikusten dugu, batera normalak ez diren egoeratan». Normalki auto hauen portaera izugarri ona izaten dela aipatu digu Xuperrek, baina Arbizuko probak izan zituen berezitasun batzuk. «Aitzineko euri eta elu-

**«Aintzinean ibiltzeko, hasteko gurpilak aldatu behar dira, suspentsioa, blokeoak hobetu, uran ibiltzeko haize-toma altxatu... gastu handia da»**

rrekin dena bustia zegoen, kristoren lohia eta autoa bizpahiru aldiz aitzinera eta gibelerara ibiliz gero, izugarri zaila zen proba gainditzea». 50 autok parte hartu zuten Arbizuko proban, 50 gidari eta 50 laguntzaileekin. Horretaz gain, senideak eta lagunak ez ezik, zaletuak mugitzen direla kontuan hartuz, jende aunitz bildu zen. «Afizioa bada —dio Xuperrek— motor asuntok mugitzen du jendea eta todoterrenoak ere aunitz mugitzen du». Horrelako proba batean parte hartzeko moduan autoa ez da arratsalde batez prestatzen, noski. «Denbora puska behar da, aunitz solastu eta dirua ere behar denez, patrozinadoreak harra-

patu behar dira, badu bere tomatea eta bizpahiru hilabete behar dira autoa prestatzeko. Zirkuitoa lehenago prestatzen da, aste batez edo hamabortz bat egunez egiten da». Xuper bera ere aritzen da autoa prestatzen horrelako probetarako eta prestakuntza handia eta garestia behar duela onartzen du. «Prestakuntza garestia da. Serieko todoterrenoak heldu den bezala uzten baduzu, bai, ongi ibiltzen da, baina aitzinean ibili nahi baduzu, hasteko gurpilak aldatu behar dira eta gurpil zakar batzuk paratu, suspentsioari rekorrado gehiago eman behar diozu, blokeoak hobekiago paratu behar dituzu ejetan, uran ibiltzeko haize-toma altxatu behar duzu, urik ez sartzeko motorean, bertzenaz leheretzen da... Gastu handia da hori, dena garesti da eta hori da afera».

Udaberrian hasten da sasoia eta urria bitarte iraunen du. Xuperrek dioen bezala, «autoa pixko bat prestatzen duenak desiotan egoten da denboraldia hasteko!».

## HERRI KIROLA

# Herri Kirol Jolasetan aritu dira Arantza eta Narbarteko gaztetxoak

Arantzako alebin mailako taldeak proba konbinatuan txapelkun izan da

A.A.

Apirilaren 4an jokatu zen Berriozarren Nafarroako Herri Kirol Jolasetako bosgarren eta azken jardunaldia. Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarekin batera antolatzen dituen Kirol Jolas hauetan hiru mailako txapelketak jokatu dira: 11-12 urteko alebin mailakoak, 13-14 urteko haur mailakoak eta 15-16 urteko kadete mailakoak. Haur eta kadete mailan proba konbinatu txapelketa eta sokatira txapelketa jokatu dira. Alebin mailan berriz, proba konbinatu txapelketa bakarrik burutu da.

Azken honetan lortu du, hain zuzen, txapela Arantzako taldeak. Azken saioan ez ziren ongi ibili eta hirugarrenan izan ziren Berriozar eta Etxarri Aranazko Andra Mari taldeen gibeletik eta Altsasuko Iñigo Aritzaren aitzinetik. Gauzak honela, txapelketa hau liga sisteman jokatu dela kontuan hartuz, sailkapen orokorra egiterakoan Arantza eta Berriozarren artean puntu berdinketa egon zen. Hori dela eta, bortz jardunalditan egindako denborak batu ziren eta denborarik onena Arantzako taldeak zuenez, txapelkun bera gelditu zen.

Haur mailako proba konbinatuko finalean ere



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

**Arantza eta Narbarteko kirolari gaztetxoak, Arantzako martxoaren 28an egin zen saioaren ondotik.**

aritu zen Arantzako taldea, baina laugarren izan zen, Etxarri Aranazko Putterri, Altsasuko Iñigo Arizta eta Etxarri Aranazko Andra Mariren gibeletik.

Kadete mailako proba konbinatuan, bigarren izan zen apirilaren 4ko saioan Arantzako taldea, Txantreako Eunatearen gibeletik eta

Etxarriko Andra Mariren aitzinetik. Dena den, aitzinetik jardunaldietako puntuak kontuan hartuz, hirugarren izan zen Arantza, arestian aipatutako bi talde horien gibeletik.

Sokatira txapelketan berriz, haur mailako 480 kiloko kategorian Altsasuko Iñigo Arizta A izan zen txapel-

dun, eskualdeko ordezkari izan ez duen txapelketa bakarrean. Kadete mailako 540 kiloko kategorian, berriz, azken saioan Txantreako Eunate taldea nagusitu zen, Arantza eta Narbarteko tiralariak osatutako taldearen eta Andra Mariren aitzinetik. Sailkapen orokorra ere honelaxe gelditu da.

## Beti Gazteko sokatira taldea Sadarren

Lesakako Beti Gazte sokatira taldeari omenaldia eskaini zitzaion Iruñeko Sadar futbol zelaiaren apirilaren 4an, Osasuna eta Malagaren arteko partidaren aitzinetik. Glasgowko Munduko txapelketatik urrea eta zilarra ekarri ondotik, Lesakako tiralariak gustora hartu zituzten futbolzale nafarren txaloak.



ARGAZKIA: D. NOTICIAS

**Beti Gazteko tiralariak zelaiaren erdian.**

## PILOTA

### Belateko klub arteko txapelketaren finalak

**Ttikiak-1:** Espinal-Larunbe (Zugarralde), 16; Bertiz-Telletxea (Igantziko Biltoki), 9.

**Ttikiak-2:** Erantsus-Orrio (Zugarralde), 16; Errandonea-Mitxelena (Gure Txokoa), 14.

**Umeak-1:** Apeztegia-Oskotz (Txaruta), 16; Arnantz-Otamendi (Pilotajauku), 12

**Umeak-2:** Untxalo-Elizalde (Txaruta), 16; Apeztegia-Urkizu (Umora Ona), 10

**Umeak-3:** Arbelaitz-Zamorano (Arkupe), 16; Etxeberria-Salaberria (Umora Ona), 8

**Kimuak-2:** Ixurra-Navarro (Gure Pilota), 18; Vazquez-Eizagirre (Gure Txokoa), 12.

**Kimuak-3:** Sanjurjo-Maia (Arkupe), 18; Olaizola-Carrion (Arkupe), 16.

**Haurrak-1:** Sagastibeltza-Galartza (Aurrera), 18; Olloma-dariaga (Txaruta), 7.

**Haurrak-2:** Riopedre-Martinez (Gure Txokoa), 18; Madariaga-Bereau (Txaruta), 16.

**Kadeteak-1:** Goñi-Urrutia (Txaruta), 22; Arregi-Otxandorena (Txaruta), 13

**Kadeteak-2:** Santesteban-Iriarte (Zugarralde), 18; Nuñez-Barraibar (Aurrera), 4

**Gazteak-2:** Garcia-Pina (Zugarralde), 18; Goñi-Fernandez (Txaruta), 4

**Helduak-1:** Ontsalotirapu (Aurrera), 22; Rekalde-Orotz (Paz de Ziganda), 19.

# AGENDA egunez egun

## ERAKUSKETAK

### LESAKA

**Apirilaren 12tik 25era**  
Pedro Lanz, burdin artisauaren lanak ikusgai Beti Gazteren egoitzan, 18:30etatik 20:30etara.

## MENDI ATERALDIAK

### SUNBILLA

**Apirilaren 25ean** Iparlara joanen da Illurdi mendi taldea.

### Maiatzaren 1ean

Collaradara joanen da Illurdi mendi taldea.

## BAZTAN

### Apirilaren 25ean

Nafarroaren Egunara (Baigorri) ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek.

**Maiatzaren 2an** Azpilkuetara ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek.

## LEITZA

### Apirilaren 25ean

Aiako Harrietara ibilaldia antolatatu du Mendibil mendi taldeak.

## DANTZAK

### LESAKA

### Apirilaren 25ean

Tantirudantza dantza taldearen saioa karrikaz karrika eguerditik goiti.

## IPUIN KONTALARIAK

### LESAKA

### Apirilaren 23an

Estitxu Mentaberri haurrentzako ipuin kontalaria izanen da liburutegian 17:00etan. 20:00etan Jon Abrilen «Helloak Txinan» liburua aurkeztuko da.

## BERA

### Apirilaren 23an

Koldo Amestoeiek «Biderdi» ipuin ikuskizuna aurkeztuko du Kultur Etxean 18:30etan.

### Apirilaren 30ean

Ur Apalategik «Gure gauzak S.A.» liburua aurkeztuko du Kultur Etxean 20:00etan.

## TELEBISTAKO TXOKOA



Teknikariak lanean Berako estudio zaharrean.

## TTIPI-TTAPAREN LEKU ALDATZEA

# Telebistaren estudio berria Etxalarko Eskola Zaharretan

Hemendik aitzinera Etxalarko Eskola Zaharretik (Andutzeta 12) emitituko du Ttipi-ttapa Telebistak. Berako Herriko Etxeko beheko solairutik tramankulu guziak hartu eta Etxalarko bidea hartu dute eguneroko emisioa posible egiten duten langile, kamera, ordenagailu, antena eta bertze hainbat tresnek. Hori dela eta, joan den asteko emisioan urte osoan egindako erreportaiak, saio bereziak eta grabatutako programak izan dituzue ikusgai. Hori bai, aste honetatik aitzinera berriz ere eguneroko albistegi eta programekin bueltatuko da ttipi-ttapa telebista, noski estudio eta dekoratu berrieekin.

Behin ongi lekututakoan, ohiko programazioari ekinen dio ttipi-ttapa telebistak: eguneroko albistegiak, asteleheneroko «Jokoa Solas» kirol saioa, asteartetako «Eltze Be-roan» sukaldaritza saioa, zine laburmetraien emanaldiak, asteazkenetako merkatuko prezioak, ortzeguneko «Autoak» edo ortziriletako «Musika Bizirik» eta «Erreportaia»...

Eguneroko lanari ekiteko, aste hondar honetan egin diren ekitaldien berri emanen du ttipi-ttapa telebistak albistegi saioetan: Lesakan egin den Erdi Aroko Azoka, Beran Arkupeak elkarteak antolatatu duen gimnasia erakustaldia...

## DISKAK



«12 geltoki»

### Karlos Gimenez

LAIDA-ELKAR, 2004

Karlos Gimenez 1976. urtetik honantz gure lirika herrikoia piano jole, moldatzaile, produktore artistiko eta musika-zuzendaririk argien eta aktiboenetakoa izan da. Euskal Herrian gorputz hartu duten diska eta zuzeneko emanaldi aunitzek bera izan dute lagun: Oskorri (lehen garaia), Klabelin Komik, Imanol, Antton Valverde, Xabier Lete, Julian Lekuona, Jose Antonio Labordeta, Pier-Paul Berzaitz, Jean Mixel Bedaxagar, Erramun Martikorena, Belardi... «12 geltoki» bakarkako bere lehen diskoa dugu. Bihotzetik bihotzera bidaiari zoragarri batean gidatzen gaituen piano-solo gozo, sentibera eta bikaina. Gizakiaren hamabi aro, hamabi adinen isla honetan, sorkuntzaren udaberri zahartzaroaren udazkena bitarteko ortzadarra marrazten digu Karlos Gimenezek.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Martxoaren 26tik apirilaren 2ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 32,00 € (-5,00 €)

**Zerri gizena**  
1,060 € kilo. (-0,01)

**Zerramak:**  
0,500 € Kg/bizirik. (=)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,04 (-0,03)

**1.koa** 2,89 (-0,03)

**2.koa** 2,76 (-0,03)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,09 (-0,03)

**1.koa** 2,96 (-0,03)

**2.koa** 2,83 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 250,00 (=)

idixkoak 260,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 192,00 (=)  
idixkoak 220,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,90/2,96  
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,70/ 6,00  
8-10 kilokoak: 4,45 / 4,95

**JAKIN BEHARREKOAK**

# Ezegonkortasun psikomotorea

Gaur egun arreta-falta eta hiperaktibitatea (TDAH) diagnostikatu zaien haur aunitz daude, baina zenbait dute egitan eritasun hau? Seguraski diagnostikatutako guzietan ez daukate, auzitan TDAHa ezegonkortasun psikomotorearekin nahasten baita. Baina zer da TDAHtik ezberdinen ezegonkortasun psikomotorea?

Bi ezegonkortasun mota daudela erraten ahal da:

- Batean mugimenduaren nahasteak nagusitzen dira, batez ere hiperaktibitatea eta koordinazio-akatsak.
- Bertze batean afektuzko eta espresibitatearen atzeratasuna nabarmentzen da, gizarte eta familia inguru ez-seguruan eta orekarik gabekoan oinarria duena.

Bi ezegonkortasun mota hauetan emozio, hizkuntza eta izaera nahasteak agertzen dira.



**Haurrekin bere energia deskargatzeko jarduerak antolatzen ahal ditugu, lasaitasunerako tartea uzten duten bertze batzuekin uztartuz.**

**EZEGONKORTASUN PSIKOMOTOREA**

**DAUKAN HAURRA**

**EZAGUTZEKO PISTAK**

- Aztoramen psikomotorea agertzen du etengabe.
- Inguruarekin harremanatzeko zailtasuna agertzen du.
- Odolberoa denez, koordinaziorako zailtasunak ageri ditu.
- Tik, toteltasun eta gisako alterazioak izaten ditu.

- Zirkuitulaburrak baliu bezala ageri da, hau da, gauza batek bertzerera joaten da, jarraipenik gabe.
- Antolatzea kostatzen zaie (hobe, antolatze-ko ezintasuna dute).
- Animo egoeran gorabeherak ditu, poz haunditik negarrera pasatzen ahal da.
- Eskola-lanak alde batera uzten ditu.
- Gizarte arauak ere ez ditu onartzen.

*Ezegonkortasun psikomotorea duen haurrak animo egoeran gorabeherak ditu eta poz haunditik negarrera psatzen ahal da.*

• Lagun eta familiarekin dituen harremanak nahiko zailak izaten dira.

**ZER EGITEN AHAL DUGU HAUR HAUEKIN?**

Ezegonkortasun psikomotoreak daukan tratamendua farmakologikoa, berrezkuntza psikomotorea eta laguntza psikoterapeutikoa izaten ahal da. Zehazkiago, haurrekin bere energia deskargatzeko jarduerak antolatzen ahal ditugu, deskantsu eta lasaitasunerako tartea uzten duten bertze batzuekin uztartuz. Ardura zerbait eskatzen duten lan txikiak eman, lasaitasun progresiboa antolatzea zerbait behar duten ekintzak programatu eta autokontrolerako egiten dituen saiakerak saritu, bere portaeraren kontra etengabe agertu gabe.

**Rakel AMIGO**  
Bortziritako Gizarte Zerbit.

**SOLASALDIAK**

**LESAKA**

**Apirilaren 22an** «Sorginkeria Lesakan» solasaldia eskainiko du Juainas Paul Arzak historialariak Herriko Etxeko Batzar aretoan, 19:00etan.

**ELIZONDO**

**Apirilaren 23an** «Euskal Herria, egiteko dagoen iraultza» solasaldia eskainiko du Justo de la Cueva soziologoak Arizkunenea Kultur Etxean, 20:00etan.

**BERTSO SAIOAK**

**LESAKA**

**Apirilaren 24an** Andra Mari zaharretxean saioa 17:00etan.

**IKASTAROAK**

**BERA**

**Apirilaren 21etik maiatzaren 26ra** Betiko Euskal Kantu Zaharren Ikastaroa Labiaga ikastolaren eskutik. Izen ematea 012 telefonon.

**DONEZTEBE**

**Apirilaren 20, 22, 27, 29 eta maiatzaren 4an** menopausirari buruzko osasun heziketa saioak Osasun Etxean, 10:30etatik 12:30etara.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**112 TFNORA. DEITU**

**Apirilaren 19tik 25era**

Bera (A. Lasaga), Doneztebe (S. Larraioz), Arizkun, Oronoz-Mugairi, Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

**Ap.26tik maiatzaren 2ra**

Lesaka (M. Marin), NARBARTE, Elizondo (J. Iturralde), Leitza (A. Gimeno).

**Maiatzaren 3tik 9ra**

Bera (A. Fernandez), Etxalar, Doneztebe (J. A. Mendia), Elizondo (E. Arrupea), Urdazubi, Leitza (M.I. Larraia)

**LIBURUAK**



*Buda zoriotsuen etxea*

**Joao Ubaldo Ribeiro**

TXALAPARTA, 2004

Joao Ubaldo Ribeiro idazle brasildarra idazle irakurrienetako da bere sorterrian. Lehen liburua 1968an argitaratu zuen, *Irailek ez du amaierarik* izenburupean, eta haren gibeletik 15 liburu inguru argitaratu ditu. *Viva o povo brasileiro* (1984) da bere liburu ezagunena, 120.000 ale baino gehiago saldu baititu. *Buda zoriotsuen etxea* egilearen liburu erotiko bakarra da. Oihartzun haundia izan zuen nazioartean eskandalu handi baten ondotik,

Portugalgo eremu handiko saltokietan liburua ez saltzeko erabilia hartu zutenean, «moral publikoaren aurkako atentatua» zela erranez. Bizitza libertinoa izan duen 68 urteko emakume brasildarra da liburu honetako narratzailea. Bere hitzetan, bizitza larrua jotzea da, eta kontu horretan gibelatuak gaude, ezin gibelatuagoak. Orain, Txalapartaren Literaturara bildumarako itzuli du Karlos Zabala irundarrak.

00-34 **948 635 458**

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak




☎ 948 637281 (denda orduetan)

## LESAKA

Herrigunetik 800 metrora dagoen etxea salgai

- Garajea, behe-itiko solairua 51 m<sup>2</sup> erabilgarriak
- Beheko solairua, 107 m<sup>2</sup> erabilgarriak
- Bigarren solairua, 113 m<sup>2</sup> erabilgarriak
- Tximeneta, berogailu zentrala eta lorategia.
- Ekipatua eta mobleztatua. - 1.500 m<sup>2</sup>ko lur eremua inguruan.



## UKULU PROMOZIOAK, S.L.

*Urbanizatutako Lur Sailen  
Salmenta 500 m<sup>2</sup>  
Sunbillan, Nafarroako Iparraldeko  
Natur Eredu preziatuan, mendiari  
begira. SUNBILLA. Irundik 20  
minutura eta Iruñatik 30 minutura.*  
Tel.: 948 451 596/ 667 424 635

## ADOS

- **BERA.** - Pisu pare bat salgai.
- **DONEZTEBE.** - Santa Luzia plazan lokal komertzialak salgai.
- **ELIZONDO.** - Pisuak eta terrenoak erosten dira.
- **BORTZIRIAK.** - Terrenoak eta baserriak erosi nahi dira.

**BAZTAN-BIDASOAN:** Baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai. Aukera zabala.

948 451 841 / 607 978 656

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

Egurrezko etxebizitzak erakitzen dira prezio onean. ☎ 649 792399.

**BORTZIRIAK.** Etxe, borda,

baserria edo lur eremua erosi nahi da. Urgentea. Edo zein preziotan. ☎ 610613157.

### ETXEBIZITZAK 102 Erosi

**BERA.** Pisuak erosi edo errentan hartuko nuke. ☎ 678 209907.

### ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

**BERA-LESAKA-ETXALAR** Pisuak errentan hartuko nuke. ☎ 687 039889.

### GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

**LESAKA.** Bulegorako presatutako lokala errentan ema-

ten da. ☎ 690 396252.

**ELIZONDO.** Pisuak errentan eman nahi da, mobleztatua, Braulio Iriarte karrikan. ☎ 676 707620.

### LURRAK/ORUBEAK 113 Erosi

**IGANTZI-LESAKA.** Terrenoak erosi nuke. ☎ 690 621836.

### LANA 301 Eskariak

**Emakume batek** kamarera gisara lan egiten luke aste-buruetan. ☎ 650 772171.

**Asteburuetan igeltsero** lanak egiten nituzke. ☎ 680 461631.

**Emakume arduratsua** (informe onekin) eskaintzen da garbiketarako edo helduak zaintzeko. ☎ 628 079623.

**Emakumea** eskaintzen da etxe lanak edo jatetxetan lan egiteko. ☎ 940 630972 edo 653 210160.

**BERA.** Gizonezko batek edozein lan egiten luke. Baudut Erresidentzia Baimena. ☎ 636 664577.

**Emakumea** eskaintzen da

## ADOS

### AGENTE KOMERTZIAL BAT BEHAR DA

- **Betebeharreko baldintzak:**
  - Emakumea izatea
  - Euskaraz jakitea
  - Gida baimena izatea
  - Autoa izatea
  - Adinak ez du inportatu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu:

948 451 841

lan egiteko eskualdean (portalak garbitzen, jatetxeetan fregatzen...). ☎ 948 451746 (8:00etatik 15:00etara).

### LANA 302 Eskaintzak

**ETXALAR.** Pertsona bat behar da asteburuetan lan egiteko, Etxalarko Bentaren barran. ☎ 948 635000.

**Sukaldeko laguntzaile** eta kamarera behar dugu. Ikasteko gogoekin. ☎ 650831392 edo 948 631584.

**Sukaldari profesionala** behar dugu, maila altuko jate-txean lan egiteko. Balioaren arabera soldata. ☎ 948 625542.



## Lan bila zabilta?

### LAN ESKAINTZA

#### GIDARIAK

Nafarroako Gobernu eta Udaletxeetan  
13 lanpostu libre.

#### BIGARREN HEZKUNTZA HAUR HEZKUNTZA

Bigarren Hezkuntzan  
Lanbide Heziketan  
176 lanpostu libre.

### LAN ESKAINTZA

#### GARRAIOLARIA

Garrario tarteak eskuratzeko  
kapazitatea lortu. Izen ematea  
apirilaren 2a baino lehen.

#### BASO LANGILE eta OIHANZAINAK

Nafarroako Gobernuan  
9 lanpostu libre.  
Eskola Graduatu aski.

Presta zaituzte. Informazioa dohan.

**948 199 596**



### BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioien  
bilketa egunak

---

**2004ko maiatzaren 6an**

Lesaka .....9etatik 12etara  
Igantzi .....13:00etan  
Arantza .....14:00ak arte

☎ 948 635 254 - Etxalar

**Jatetxe zerbitzaria** behar dugu, maila altuko jatetxean lan egiteko. Baloioaren araberako soldata. ☎ 948 625542.

**ELIZONDO.** Denda batean lan egiteko langilea behar da. ☎ 619 829289.

**Ileapaindegi batean** lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 620 950329.

**DONEZTEBE.** Jatetxe batean pertsona bat behar da sukaldean lan egiteko. ☎ 617 333015.

**ELIZONDO.** Ileapaindegi batean lan egiteko neska edo mutila behar da. Ongi ordaindua. ☎ 619 097090.

**Pertsona bat behar da** ezindutako pertsona bat zaindu eta lagun egiteko, autoa gidatzeko, etxeko lanak egiteko... Lotura haun-

dirik ez duena. ☎ 943 641760 (Hondarribia).

**DONEZTEBE.** Haur bat zaintzeko neska behar da. ☎ 616 325278.

**LEITZA.** Enpresa batek tailerreko arduraduna behar du. Informazio gehiago: ☎ 619 829289.

**BERA.** Ansonaia jatetxean zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. Esperientzia izatea ez da derrigorrezkoa. Ikasteko go-goarekin. ☎ 948 631155.

**Tornatzaile eta fresatzaile** lanetan aritzeko pertsona behar da. ☎ 619 829289.

**Gidaria.** Nafarroako Gobernurako eta Burlatako Udaletxerako 13 lanpostu. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Ezinduak.** %33 edo gehiagoko ezintasuna baldin ba-



## IGANTZIKO HERRIKO ETXEA

**2004KO DENBORALDIAN  
IGERILEKUETAN SOROSLE LANAK  
EGITEKO DEIALDIA**

**Eskaerak aurkezteko epea:** 2004ko apirilaren 30eko eguerdiko 12ak arte.

**Baldintzak:** Herriko Etxeko Idazkaritzan daude.

Igantzi, 2004ko martxoaren 13a  
ALKATEA, Jesus M. Begino Garro

duzu, Nafarroako Gobernuan eta udaletxetan lana lortzeko aukera. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Zelaria.** Osasunbideak 43 lanposturako deia, 5 ezinduentzat. Izen ematea irekia. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Harreragile-telefonista.** Nafarroako Gobernurako eta Udaletxeetarako lanpostuak. Eskola Graduatu. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Etxe etxeko laguntza.** Lizarra eta Burlatan plaza libreak. Eskola Graduatu. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Bigarren Hezkuntza eta Haur Hezkuntza.** 176 plaza libre. BH eta LH. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Baso langile eta basozaina.** Nafarroako Gobernuan 9 plaza libre. Eskola Graduatu. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Lorezain, atezain, mantentzen, udaletxe eta Nafarroako Gobernurako langileak.** Laster Arbizu, Burlata, Lizarra, Zangotza, Kastejon eta Milagron. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Garbiketa langileak** udaletxe eta erakunde ofizialetan. Laster Doneztebe eta Burlatan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

### MOTORRA 501 Salerosketak

**BMW 325 TDS** auto urdina salgai. Egoera onean. Pre-

zioa: 11.120 euro. ☎ 660 804799.

**Carraro markako traktorea** salgai, 60 zaldikoa, erremolke trakzionatuarekin. ☎ 678 959534.

**Citroen C3** 1.100i Vivace autoa salgai. Haize egokietua. 24.000 km. 8.000 euro. ☎ 948 599177 edo 948 599079.

**Peugeot 405** erabilia salgai. Aukera ona karneta berriki atera dutenentzat. 350 euro. ☎ 649 596523.

### ANIMALIAK

#### MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**  
Opel Tigra, Mitsubishi Pick-up, Land Rover Discovery TDS, Opel Zafira, Peugeot 206 XS, Clio Diesel, Citroen ZX Diesel, Mitsubishi Montero 5-3 ate, Opel Calibra  
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

#### SAMPI ARAGON ZANSA

Lur orotariko ibilgailuak (4x4),  
furgonetak eta  
autoak erosten ditugu.  
Eskura ordaintzen dugu

☎ 948450334 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

### 602 Salerosketak

**Hiru betizu** salgai, bi beren ume urruxekin eta bat umatzeke. ☎ 680 613474.

Ezin zainduagatik **cocker arraza garbiko zakur** arra merke-merke salduko nuke. Marroi kolorekoa. ☎ 948 637891.

**Setter zakurkumeak** salgai, lau hilabetekoak, txertatuak. ☎ 609 068520 (arratsalde).

**Untxi-kaiolak** salgai. 5 eu-

rotan bakoitza. ☎ 609 068520 (arratsalde)

### DENETARIK 701 Galdu-aurkituak

**Seguritateko giltza pare bat** agertu dira Berako Itzea karrikan, Amabirjinaren giltzariarekin. ☎ 948 631271 (Lixoia).

### DENETARIK 702 Salerosketak

Bigarren eskuko **Femwich karretilla igogailua** erosi nahi dugu. ☎ 627 622333.

**Kalefakziorako gasoil deposito** homologatua salgai, 1.000 litrokoa. ☎ 948 637009.

**Egongelako moblea** salgai, egoera oso onean. 300 euro. ☎ 669113835.

**100 litroko ur kaldera** salgai. Elektrikoa, Fagor markakoa. Prezio onean. ☎ 948 631188.

**Bi kalefakzio akumuladore** salgai. Prezio onean. ☎ 948 631188.

**Haurrendako 3 gurpileko silleta** saltzen da, Jané markakoa eta kapota. ☎ 948 630858 (Ana).

**Eskopeta superpuesta** salgai, Miroku markakoa. Hiru izar eta bat, 70; ehizikoa. Kasik berria. 660 euro. ☎ 948 450700.

**Gasoleozko kaldera**, Tifell markakoa erosi nuke. ☎ 667 717573 (eguerditan).

### DENETARIK 703 Bertzelakoak

**Gitarra elektrikoa**, klasikoa eta akustikoa, baxu elektrikoa, armonia modernoa eta talde instrumental klaseak ematen dira Beran. ☎ 600 028740 (Fermin).

**Baserri batean** lan eginen nuke ohea eta janariaren truke euskara ikasteko, ☎ 630 169753 (Gaizka).

**Frantses klaseak** hartuko nituzke. ☎ 686 891568.

Argazki soila: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,27€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 €ko txeketa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeke, bidali kartazala zure helbidearekin.



**BEÑAT ARRAZTOA LAZKANOTEGI** beratarrek 3 urte bete ditu apirilaren 10ean. Auniz urtez Maite eta Xabierren partetik. Aupa Osasuna!!!



**XABIER URRUTIA TELLETXEA** 2 urte bete ditu martxoaren 29an. Zorionak Eider, atta-ama eta Elordiko familiaren partetik.



**SARA LATORRE GOIA** beratarrek 3 urte bete ditu apirilaren 3an. Zorionak familia guziaren partetik, eta bereziki Julen, Saioa eta Jaioneren partetik.



Kaixo. **ENEKO TELLETXEA** Irigoien naiz, 2 urte beteko ditut apirilaren 20an, Lisboan bizi naiz eta nire aita eta amak zoriundu nahi didate.



Goizuetako **OIER MIRANDAK** apirilaren 12an lehenengo urtea bete du. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama eta Ikerrerren partetik.



Elko-Nevadako **KYLE OWSLEY IGOAK** 2 urte beteko ditut apirilaren 20an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**JON MAZIZIOR MITXELENA** arantzarrak 8 urte bete ditu apirilaren 7an. Zorionak!!!



**JAIONE ETA ANDONI MAZIZIOR MITXELENA** arantzarrak 2 urte bete dituzte apirilaren 16an. Zorionak!!!



Zubietake **MIKEL ETXEKOLONEAK** 4 urte bete ditu apirilaren 9an. Zorionak eta lau muxu haundi etxekoekin partetik. Aupa panderojole!



**ASIER ZELAIETA TOMASENA** ebxalartarrak 12 urte bete ditu apirilaren 19an. Zorionak bere gurasoen partetik eta bereziki Amaiaeren partetik. Muxuk.



**OLATZ ETXEPARE ELRÍO** beratarrek apirilaren 3an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**IBAI GALLARDON ALZUGARRAI** ebxalartarrak 11 urte bete ditu apirilaren 6an. Auniz urtez familiaren partetik.



**ENDIKA TELLETXEA** doneztebarrak urte bat beteko du apirilaren 7an. Zorionak pottolo!



**XABIER TELLETXEA IRATZOKI** ebxalartarrak 2 urte bete ditu apirilaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat guraso, amatxi eta Janiren partetik.



**OIHANA SARRAITEA JABALLERA** beratarrek 3 urte beteko ditut apirilaren 21ean. Zorionak Berako eta Urdazubiko familiaren partetik.



Azkaineko **AMATXI MAÑANARI** zorionak Senpereko familiaren partez zure 75garren urtebetetzekeoz.



**MIREN LASAGA GOIENETXE** ebxalartarrak 9 urte bete ditut apirilaren 11n. Auniz urtez Xonbona! izeba, osaba eta bereziki Joseba eta Aritzen partetik.



**DANIEL GARCIA** doneztebarrak 10 urte bete ditut apirilaren 6an. Zorionak eta 10 muxu aita, ama, Eloy anaia eta Eratsungo familiaren partetik.



Aurtziko **ANDER ERASUNEK** 14 urte bete ditut apirilaren 9an. Zorionak Serranilloseko Jose Porroloren partetik. Urriurako hobe apunteria!



**LEIRE RUIZ ALTZUGUREN** beratarrek urte bat bete du apirilaren 16an. Zorionak denen partetik eta muxu haundi bat Maialenen partetik.



**HAITZ TELLETXEA ANDUEZA** beratarrek urte bat bete du apirilaren 28an. Zorionak atta, ama eta bereziki Oier eta Hegoaren partetik. Aupa txapeldun!



**ITZIAR MITXELENA GAMIO** arantzarrak 13 urte bete ditut apirilaren 16an. Zorionak familiaren partetik.



**VIRGINIA GOIENETXE GONZALEZ** lesakarrak 4 urte bete ditut apirilaren 3an. Muxu auniz familiaren partetik.



**ALFONSO REY** beratarrek 37 urte beteko ditut apirilaren 23an. Zorionak familiaren partetik.

**NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,27 EUROKO 13 SEILO**

**TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

ttipi-ttapa

Andutzeta 12 • 31760 ETXALAR

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

**ARRIETA**

erlojudenda eta bitxidenda

Erretiroa dela eta likidazio osoa

Tel: 948 580445 • ELIZONDO

Y M H

**TATANKA**

STIHL  
HUS U N



MOTOAK  
MOTOZERRAK

: t n k m : s : r r . s  
(+3 ) 3 2  
tr  
3177 LES K

**UDABERRIKO ESKAINTZA BEREZIAK**

Esku-motosegak, motokultoreak, motozerrak eta nekazaritzako klase guztietako makineria

**ARANTZA ZVRGINDEGIA**

Jose Miguel Emandueña

Klase guztietako

zurgin lanak

Osifia zuzoa © 948-634068 • ARANTZA

**BOAN TAILERRA**

AUTOEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA

☎ 948 63 06 23 • BERA

**GANIX**  
Tailerra

Iturlandeta, 9 • © 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua

# ORDOKI ALTZARIAK

## ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA



## BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA pentsatu gabe... anima zaitetz!

- 3 - 7 URTEAK HAURRENTZAKO TALDETXOAK.
- HELDUENTZAKO BAKARKAKO ETA TALDEKO KLASAK.
- LEHENDABIZIKO 2 URTETAN EZ DUZU MUSIKA TRESNARIK EROSI BEHAR, MUSIKA ESKOLAK UTZIKO DIZKIZU.

### Argibideak eta matrikula:

Infolocal: 012 telefonoa

"Isidoro Fagoaga" Udal Musika Eskola  
e-Posta: [musikaeskola@bera.animsa.es](mailto:musikaeskola@bera.animsa.es)

Legia, 26 • 31780 Bera

Telefonoa eta faxa: 948-631205


Ordutegia: 16:00etatik 19:00etara

### Matrikulazio epea:

apirilaren 19tik maiatzaren 14ra (biak barne)

# ttipi-ttapa

TELEFONO ETA HELBIDE BERRIAK



(0034) 948 63 54 57



(0034) 948 63 54 58



ttipi-ttapa

Andutzeta, 12

31760 ETXALAR



erredakzioa@ttipi-ttapa.net

tapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa  
pi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa  
pi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa  
pi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa  
tapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa  
pi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa  
tapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa  
ni-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa ttipi-ttapa